

Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027)

Zirriborria
2021eko abuztua

Aurkibidea

1. Nafarroako Gobernuaren euskararen plangintza estrategikoaren aitzinkariak eta oinarriak
 - 1.1 Aitzinkariak
 - 1.2 Lege-arauzko oinarriak
 - 1.3 2019-2023 legegintzaldirako Programa Akordioa
 - 1.4 Euskara Nafarroako Gobernuaren planetan
 - 1.5 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua
 - 1.6 Euskararen II. Plan Estrategikoa onartu arteko prozesua
 - 1.6.1 Prozeduraren abiatzea
 - 1.6.2 Diagnostika osatzea
 - 1.6.3 Partaidetza teknikoa
 - 1.6.4 Gizartearen parte-hartzea (azken bertsioan osatzeko)
 - 1.6.5 Onespena (azken bertsioan osatzek)
2. Euskarak Nafarroan duen egoeraren diagnostika
 - 2.1 Euskararen ezagutza
 - 2.1.1 Euskararen ezagutza adinaren arabera
 - 2.1.2 Euskararen ezagutza hizkuntza eremuaren arabera
 - 2.1.3 Euskararen ezagutza eskualdearen arabera
 - 2.1.4 Elebidunen hizkuntza gaitasun erlatiboa
 - 2.1.5 Euskararen ezagutza eta atzerriko hizkuntzen ezagutza
 - 2.2 Lehen Hizkuntza eta euskararen transmisioa
 - 2.2.1 Lehen hizkuntza adinaren arabera
 - 2.2.2 Lehen hizkuntza eremuaren arabera
 - 2.2.3 Lehen hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera
 - 2.2.4 Euskararen transmisioa
 - 2.3 Euskararen erabilera
 - 2.3.1 Euskararen erabilera adinaren arabera
 - 2.3.2 Euskararen erabilera hizkuntza eremuaren arabera
 - 2.3.3 Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera
 - 2.3.4 Euskararen erabilera gizarte esparruaren arabera
 - 2.3.5 Euskararen erabilera zerbitzu publikoetan gune soziolinguistikoaren arabera
 - 2.4 Euskara sustatzearen gaineko jarrerak
 - 2.4.1 Euskara sustatzearen gaineko jarrerak hizkuntza eremuaren arabera
 - 2.5 Euskarazko hedabideen kontsumoa
 - 2.6 Irakaskuntza eta helduen euskalduntzea
 - 2.6.1 Euskararen eta euskarazko irakaskuntza
 - 2.6.2 Helduen euskalduntzea
 - 2.7 AMIA analisia (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak)
3. Euskararen egoera hobetzeko eredu estrategikoa
 - 3.1 Euskararen egoera hobetzea
 - 3.2 Eredu estrategikoa
4. Ardatz estrategikoak
 - 4.1 Gizarte erabilera
 - 4.2 Hiztun berriak
 - 4.3 Zerbitzu publikoak
 - 4.4 Adostasun soziala, prestigioa eta erakargarritasuna
 - 4.5 Euskara, ekonomia eragile
 - 4.6 Hizkuntza esparrua
5. Jarraipena eta ebaluazioa
 - 5.1 Jarraipena
 - 5.2 Ebaluazioa
 - 5.3 Aginte taula (azken bertsioan guztiz osatzeko)
6. Memoria ekonomikoa (azken bertsioan guztiz osatzeko)
7. Eranskina

1. Nafarroako Gobernuaren euskararen plangintza estrategikoaren aitzinkariak eta oinarriak

1.1 Aitzinkariak

2016an, Nafarroako Gobernuak [Euskararen I. Plan Estrategikoa \(2016–2019\)](#) landu zuen. Plan hori Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika gidatzeko eta planifikatzeko egin den lehen plangintza estrategikoa izan zen, nafarren hizkuntza eskubideak babesteko eta euskaraz aritzeko aukera sozialak hobetzeko eredu berekia landu eta garatu zuena. Plan horren [ebaluazio txosten exekutiboa](#)n azaldu bezala, Nafarroako euskararen egoera hobetzen segitzeko, plangintza estrategikoak jarraipena behar du.

Dokumentu honek jasotzen duen Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027) plangintza estrategiko horren segida da eta aitzineko planak landu zuen eredu estrategikoa oinarri hartzen du.

1.2 Lege-arauzko oinarriak

Nafarroan hizkuntza politika garatzean bi dira aintzat hartu beharreko arau nagusiak: 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa; eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Espainiako Erresumak 1992an sinatua eta 2001ean berretsia, bai eta horren jarraipen prozesuan (2005ean, 2008an, 2012an, 2016an eta 2019an) Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak emandako aholkuak eta Adituen Batzordeak egindako txostenak.

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak, 1. artikuluan, honako hau ezartzen du:

1. Foru Lege honen xedea euskararen erabilera arrunta eta ofiziala arautzea da, gizarte bizikidetzaren eta irakaskuntzaren esparruetan.
2. Hauek dira lege honen ezinbesteko helburuak:
 - a) Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea.
 - b) Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz.

- c) Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

3. Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute.

Bestalde, 2.1. artikuluan ezartzen da gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla eta, horren ondorioz, herritar guztiek dutela hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

Bestalde, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak, 7.2 artikuluan, gizaratean ahulago dagoen hizkuntza erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketenak ezabatzeko konpromisoa ezartzen die estatu sinatzaileei. Egoera ahulagoan dagoen hizkuntzak aldeko ekintzak behar dituela sinetsirik, Europako Gutunak argiro dio eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez dela joko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen aurkako diskriminazio-ekintzatzat, neurrian helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainontzeko herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada.

Orobat, onartua da hizkuntza aniztasuna politika publikoetan aintzat hartu behar dela. Hizkuntzen arteko harremanak dinamikoak dira, eta, une batzuetan, harreman horiek gatazka kutsua har dezakete. Horrelakoetan, etsaitasunak pizteko edo areagotzeko bidea har daiteke, edo adostasunerako bideak bilatu, hau da, giza harremanetan sortu ohi diren gatazka egoerak gainditzen laguntzen duten kontsentsuzko lan-ildoak ezartzen saiatu.

Euskara ikasi nahi duten herritarrek baliabide egokiak behar dituzte, eta hiztunek, berriz, erabilerarako guneak; baina hori ez da gaztelania kaltetuz eginen, baizik eta bi hizkuntzak berdintasunez tratatuz.

Erakunde publikoek marko honen barruan garatu beharreko hizkuntza politikak, betiere, ongi planifikatua egon behar du, herritarrekin eta gizarte-eragileekin elkarlanean aritzera bideratua, eta gauzatzeko egokiak diren baliabideez hornitua. Xede horiek erdiesteko eta euskararen eta haren hiztunen egoera hobetzeko landu da dokumentu honetan jasotzen den Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027).

1.3 2019-2023 legegintzaldirako Programa Akordioa

2019-2023 urteetako bizikidetzarako eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako Nafarroako Gobernuaren Programa Akordioan ekinbide politikoaren hamar ardatz zehaztu ziren, horietako batek, 10.ak, honela zioen: Nafarroako errealitate historiko, kultural eta soziala gorde eta babestea, bertan dauden berezko hizkuntzak barne.

Programa Akordioaren testuan honako adostasun hauek jasotzen dira euskarari eta hizkuntza politikari dagokienez:

3.1- EZAGUTZA, HEZKUNTZA ETA AUKERA BERDINTASUNA

32. Hizkuntza eredu bat baino gehiago barne hartzen duten ikastetxeak sustatu.

35. Beharrezko eta nahitaezko euskararen hezkuntza planifikazio publikoari lagundu, berezko hizkuntza gisa, borondatezkotasunetik eta bizikidetzatik abiatuta. Euskara ikasteko hezkuntza-eskaintza garatu gradualki eta progresiboki, legeak aurreikusitakoarekin bat eginez.

3.4- KULTURA ETA KIROLA

Kultura

9. Euskara sustatu kultur adierazpideetan. Euskarari lotutako arte sorkuntza berritzailea bultzatu, hala nola formazioa, ikerkuntza, ekoizpena, hedapena eta bitartekaritza.

3.8- HIZKUNTZA POLITIKA

1. Euskararen inguruan akordio sozial eta politiko zabala sustatu, Nafarroaren idiosinkrasia eta bertako errealitate soziolinguistikoa islatuko dituen, beharrezko erantzunak ematen dituen eta Foru Komunitatean mintzatzen diren hizkuntzekiko harremana eta bizikidetzak gauzatzeko askeak izaten jarraitzeko aukera emanen diguna, euskara behin betiko aldeniduz alderdien arteko eztabaidatik eta liskarretik, eta herritarrengan diskriminazio-sentimenduak ezabatuz.

2. Kantsentsu-arau gisa edo, behar izatekotan, garatzeko arau gisa mantendu Euskararen 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, aitzineko paragrafoan agertutako printzipioekin bat eginez eta, edozein kasutan, LORAFNAK gaiak dioena errespetaturik moldatu ahal izanen dena, Foru Legearen garapena, egitekotan, Nafarroako errealitate soziolinguistikoa guztiak islatuko litzatekeen parte-hartzezko prozesu baten bidez egiten litzateke.

3. Euskararen erabilera erregulatzen duen araudia aztertu eta, behar izatekotan, egokitu, lurraldeko errealitatearekin eta bertan dagoen eskariarekin bat egiten duen tratamendua bermatzeko. Aldi berean, araudiak babestu egiten du herritarrek euskara erabiltzea eta ezagutzea, borondatezkotasunaren eta aukera-berdintasunaren printzipioekin bat eginez.

4. Gobernua eratzetik urtebeteko epean gehienez, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskara erabiltzeari buruz indarrean dagan araudiaren funtzionamendua aztertuko da, diagnostiko horren arabera indarrean dagoen araudiaren moldaketa bultzatzeko, kontsentsu sindikal, sozial eta politiko handiagoaren bila.

5. Halaber, aintzat hartuko da ebatzteke dauden indarreko araudiaren aurkako helegiteez Justizia Auzitegiek une oro erabaki dezaketena, bai eta ere administrazio publikoetan lan egiten duten pertsonen eskubide bateratuei begirunea.

6. Euskararen 2. plan estrategikoa prestatu, gobernu aurrerakoia osatzeko Akordioan ezarritako ildo nagusien barnean.

7. Euskararen sustapena hedabideetan, euskararen irakaskuntza pertsona helduei, bizitza sozial eta kulturala, bereziki gazteenei zuzenduriko programak.

8. Erakunde publikoekin eginiko lankidetzaz hitzarmenei jarraitutasuna eman, edo, dagokion kasuetan, arlo publikoarekiko modu subsidiarioan, euskararen arloan erantzukizuna duten gizarte entitateekin eginikoei.

9. Berezko hizkuntzak dituzten Autonomia Erkidegoekin eta Europakoekin, koordinazioa mantendu, indarrean dagoen errealitate instituzionala eta legedia errespetatuz.

10. Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna aplikatzeari dagokionez, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak eginiko gomendioak eta "Aditu Batzordearen Ebaluazio Txostenak" eginiko oharrak aztertu eta, beharko balitz, aintzat hartu.

11. Euskarabidea organismo autonomo gisa mantendu, gaur egun dituen eskuduntzekin, eta bere jarduerarako aski aurrekontu eta baliabide emanik.

ERANSKINA. I.- Desakordioak

Hezkuntza

- "Ez bereizi ikasleak ikastetxe bat baino gehiagotan hizkuntza ereduaren arabera", Izquierda-Ezkerrak eginiko proposamena, zeinarekin Geroa Bai ados ez dagoen.

- "Hizkuntzen Tratamendu Bateratua sustatuko dugu Ikastetxeen Hezkuntza Proiektuaren barnean", Geroa Baik testuan gehitzeko eginiko proposamena, PSN-PSOEek onartu ez duena.

1.4 Euskara Nafarroako Gobernuaren planetan

Euskararen II. Plan Estrategikoak Nafarroako Gobernuak dagoeneko onetsirik dituen planak aintzat hartu ditu eta horietan euskararen inguruan aipatzen direnak jaso, politika publikoan euskararen sustapena zeharkakotasunez eta koherentziaz lantzeko. Plan hau moldatzeko kontuan hartutako dokumentuak hauek dira:

- [Estrategia de Especialización Inteligente de Navarra S³ / Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia \(S³\)](#)
- [Plan Reactivar Navarra / Nafarroa Suspertu 2020-2023](#) (PR / NS)
- [Estrategia Digital Navarra 2030 / Nafarroa Estrategia Digitala 2030](#) (ED)
- [III Plan Foral de Juventud / Gazteariaren III. Foru Plana 2021-2023](#) (PFJ / GFP)
- [Plan Estratégico de Turismo de Navarra / Nafarroako Turismo Plan Estrategikoa 2018-2025](#) (PET / TPE)

1.5 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua da Nafarroako Gobernuaren Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027) kudeatuko duen erakundea.

[94/2019 FORU DEKRETUAK](#), abuztuaren 14koak, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren oinarrizko egitura ezartzen duenak, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoa departamentu horri atxiki zion (1.2 art.).

[303/2019 FORU DEKRETUAK](#), azaroaren 6koak, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onetsi zituen.

Erakunde autonomoaren eskumenei doakienez, Euskarabideari dagozkio euskararen erabilera ofizialaren arautegia garatzeko ikerketa eta aholkularitza eskumenak, eta euskararen baliabideak planifikatzea, sustatzea eta kudeatzea Nafarroako Foru Komunitatean.

3. artikuluan, eskumenak eta eginkizunak zehazten direnean, honela jasotzen da: v) Euskara sustatu eta erabiltzeko Plan Estrategikoaren proposamena egitea eta beroni jarraipena egiteko, ebaluatu eta eguneratzeko nahitaezkoak diren azterlan eta ikerketak egitea.

Esleiturik zaizkion eginkizunak eraginkor betetzearren, 2016an Euskarabideak bere misioa, ikuskera eta balioak birdefinitu beharra ikusi zuen. Misioa honela zehaztu zuen: Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomoa da, zeinak, hizkuntzaren arloan indarrean den lege-araudiaren barnean, xede baitu Foru Komunitaterako hizkuntza-politika zehaztea, gidatzea, garatzea, gauzatzea eta ebaluatzea, biztanle guztien

hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskara indarberritzeko eta sustatzeko; betiere, gizarte eragileekin eta gainerako administrazioekin elkarlanean.


Erakundeak bere ikuskera honela adierazi zuen: Euskarabidea euskara gizartean biziagotzeko erreferente berritzailea da, adostasuna bilatuko duena eta, euskara ikastea eta erabiltzea sustatuz, mintzairaren prestigioa jasotzen lagunduko duena.

Euskarabideak honako balio eta ezaugarriok jo zituen bere:

1. Lankidetzaren eta lankidetzarako prest dago
2. Gardena eta arina
3. Errealista
4. Ausarta
5. Errespetuz jokatzeko du
6. Integraztailea

1.6 Euskararen II. Plan Estrategikoa onartu arteko prozesua

Euskararen II. Plan Estrategikoa I. Planaren ebaluaziotik abiatu eta parte-hartzeko prozesu baten bidez moldatu zen lanketa luze baten emaitza da. Idazkia apailatzeko urratsak 2020ko martxoan hasi ziren eta **2021eko abenduan (azken bertsioan osatzeko)** amaitu. Hona bide horren mugarri nagusiak:



1.6.1 Prozeduraren abiatzea

2020-03-09. Euskararen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa aurkeztu eta bigarrenaren prozesua iragarri zen.

2020-04-21. Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Abiatzeko Foru Agindua, 33E/2020, sinatu zuen.

2020-06-02. Euskararen Nafar Kontseiluari Euskararen II. Plan Estrategikoa osatzeko prozesua aurkeztu zitzaion.

2020-06-23. Euskarabidearen Gobernu Kontseiluari Euskararen II. Plan Estrategikoa osatzeko prozesua aurkeztu zitzaion.

2020-08-28. Plan Estrategikoa prestatzeko laguntza teknikoa kontratatzeko lizitazioa Nafarroako Gobernuaren Kontratazio Atarian argitaratu zen. Kontratuaren lehiaketa SIADECO enpresak irabazi zuen eta lanak 2020ko udazkenean hasi ziren.

1.6.2 Diagnosia osatzea

II. Plan Estrategikoa apailatzeko prozesuaren abiapuntua Nafarroan euskara zertan den ezagutzea izan zen. Euskararen egoeraren diagnosia 2020ko udazkenean burutu zen eta, horretarako, Euskarabidea informazio bide nagusi hauetaz baliatu zen:

- Dokumentazioaren azterketa

Nafarroako ikerketa eta azterketa soziolinguistikoetara jo genuen batik bat euskararen ezagutzaren, erabileraren eta mintzairaren gaineko jarreraren egoera eta bilakaera ezagutzeko eta hizkuntzak gizarte arlo nagusietan duen egoeraz jabetzeko. Euskararen egoera sozio-funtzionala osatzeko dokumentazioa ez da homogenea, arlo batzuetan ikerlan ugari daude eta beste batzuetan, aldiz, azterketak urri dira. Hona aintzat hartutako dokumentuak:

[*Euskararen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa. Txosten exekutiboa*](#)

[*Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018*](#)

- Adituen ekarpenak

Nafarroako hizkuntza errealitatearen argazki orokorra irudikatu ahal izateko euskararen egoera ongi ezagutzen duten bederatzi adituen ikusmoldeak jaso genituen. Adituak arlo eta jarduera ezberdinetakoak bai eta euskararekiko ikuspegi ideologiko anitzetakoak izan ziren. Izan ere, aditu taldea osatzerakoan alderdi hauei begiratu genien: euskararen egoera ezagutzea eta horren gaineko iritzi jantzia eta hausnarketa egina izatea; eta Nafarroako pentsamendu aniztasuna ongi ordezkatzeko. Hona diagnosia osatzeko ekarpenak egin zituzten adituak:

Sagrario Aleman	Euskaltzaina, helduen euskalduntze-alfabetatzean aditua eta Euskararen Nafar Kontseiluko kidea.
Mikel Arregi	Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari-kudeatzailea eta Euskararen Nafar Kontseiluko kidea.
Xabier Erize	Soziolinguistikan doktorea, ikertzailea, euskaltzain urgazlea eta Euskararen Nafar Kontseiluko kidea.
Aingeru Epaltza	Idazlea eta itzultzailea.
Miguel Izu	Legelaria eta Nafarroako hizkuntza legedian aditua.
Iñaki Iriarte	Navarra Suma koalizioko parlamentaria eta Herritarrekiko Harremanetako batzordeko kidea.
Bakartxo Ruiz	EH Bilduko parlamentaria eta Herritarrekiko Harremanetako batzordeko kidea.
Marisa De Simón	Izquierda-Ezkerrako parlamentaria eta Herritarrekiko Harremanetako batzordeko kidea.
Maria Solana	Geroa Baiko parlamentaria eta Herritarrekiko Harremanetako batzordeko kidea.

Ikerketa soziolinguistikoetako datuak eta adituekiko elkarrizketetako ikusmolde nahiz iritziak baliaturik, Nafarroako euskararen egoeraren hasierako diagnostia eta horren aztertzeko tresna, AMIA (Arriskuak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak), osatu genituen.

1.6.3 Partaidetza teknikoa

2021eko urtarrilaren 26tik aitzina parte-hartzeko prozesu telematikoa abiatu zen. Sei mahai-tekniko monografiko antolatu ziren. Nafarroako Administrazio publikoetako hainbat arduradun nahiz tekniariri, bai eta gizarteko eragile talde askotarikoari ere, euskararen egoeraren diagnostia osatzeko eta proposamenak egiteko aukera luzatu zaitzaien. Mahai tekniko bakoitzean bi saio telematiko egin ziren, COVID-19ko pandemiak eskatzen zituen osasun publikoaren neurriak aintzat hartuz, prozesua azaltzeko eta parte-hartzaileek ahoz nahiz idatziz ekarpenak egiteko.

Mahai teknikoak arloka antolatu ziren, Euskararen I. Plan Estrategikoan definituriko ardatzen arabera. Nafarroan Iruñeak eta Iruñerriak duen pisu demografiko, ekonomiko eta soziala

kontuan izanda, hiriburuari eta haren eskualdeari mahai tekniko berekia eskaini zitzaien, plangintza estrategikoan horren inguruko proposamenak berariaz biltzeko. Mahai tekniko bakoitzak gai eta azpigai sorta bana zuen parte-hartzaileak gogoetan aritzeko eta ekarpenak egiteko:

1. Euskararen gizarte erabilera. Hizkuntzaren erabilera sustatzea gizarteko esparru guztietan (kultura, kirola, aisialdia, arlo sozioekonomikoa, IKTak eta sare sozialak...); haurren eta gazteen artean bereziki euskararen erabilera sustatzea; euskararen jakite maila altua eta erabilera orokortua duten udalerrien berariazkotasuna (arnasguneak), baita euskararen gizarte bizkortasun txikia dutenena ere; euskarazko komunikabideak eta hizkuntza horren erabilera hedabide nagusietan; euskararen erabilera irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeetan; euskarazko kulturaren kontsumoa; eta kultur ondare ukiezina euskaraz; besteak beste.
2. Euskal hiztun berriak. Euskararen irakaskuntza eta euskarazko irakaskuntza hezkuntza sisteman, haur eskoletatik hasi eta unibertsitateko irakaskuntzara arte; helduei zuzenduriko euskararen irakaskuntza; ahozko erabilera finkatzeko estrategiak, hizkuntzaren ikaskuntzaren indargarri gisa; euskararen familiako transmisioa eta haurren hizkuntza sozializazioa; eta migratzaileen harrera linguistikoko programak; besteak beste.
3. Euskara zerbitzu publikoetan. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea; 103/2017 Foru Dekretuaren garapena; departamentuetako hizkuntza planak; Foru administrazioaren gaikuntza hobetzea zerbitzuak euskaraz emateko; itzulpena eta laguntza teknikoa, zerbitzua euskaraz emateko eta toponimia ofiziala erabiltzeko; Nafarroako administrazio publikoetako langileak gaitzea euskarari dagokionez; eta Nafarroako toki entitateekin eta Estatuko administrazioarekin lankidetzan aritzea; besteak beste.
4. Euskararen prestigioa eta erakargarritasuna. Euskarari dagokionez, instituzioek duten komunikazioa, diskurtsoa eta irudia. Hizkuntzaren gizarte erabileran positiboak diren erreferenteak eta jardunbide egokiak ikusaraztea. Euskal hiztunen kontzientziazioa eta ahalduntzea. Erdaldunak sentsibilizatzea eta euskarara hurbiltzea. Nafarroan euskarari buruzko adostasun soziala; besteak beste. Hizkuntza paisaian euskararen presentzia handitzea; besteak beste.
5. Euskara, ekonomia eragile. Euskarak hainbat esparrutan ekonomia eragile izateko duen ahalmena. Euskara, produktu eta zerbitzuen balio erantsia. Euskara IKTetan; besteak beste.
6. Euskara Iruñean eta Iruñerrian. Nafarroan hiriburuak eta bere eskualdeak, Iruñerriak, duten pisu demografikoa, ekonomikoa eta sinbolikoa aintzat hartzekoa da euskara indarberritzeko

ahalegin eta plangintzetan. Nafar guztiok, edonon bizi garela ere, dugu Iruñearekiko zerbitzu morrontza handia eta euskarak hiriburuan irabazten edo galtzen duenak ondorio biderkatua du Nafarroa osoan.

Mahai tekniko telematikoetan 109 eragilek hartu zuten parte (mahai teknikoetan parte-hartu zuten eragileen zerrenda xehakatur dokumentu honen eranskinean dago). Hona mahai teknikoetako parte-hartzea mahaika:

1. taula. Euskararen II. Plan Estrategikoa moldatzeko mahai teknikoetara bildutako eragileak.

Mahai teknikoa	Parte-hartu zuten eragile kopurua
1 Gizarte erabilera	18
2 Hiztun berriak	25
3 Zerbitzu publikoak	14
4 Adostasun soziala, prestigioa eta erakargarritasuna	23
5 Euskara, ekonomia eragile	14
6 Euskara Iruñean eta Iruñerrian	15
GUZTIRA	109

Iturria: Euskarabidea

Arlokako mahai teknikoen lehen saioan, administrazio publikoetako eta gizarteko eragileek Euskararen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta egungo egoera soziolinguistikoaren datuak aztertu zituzten. Ondoren, parte hartzaileei landutako dokumentazioa eta ekarpenak egiteko galde-sorta bat igorri zitzaizen eta baita foro telematiko batean iritzi-trukean aritzeko aukera eman ere. Mahai teknikoen lehen saioa akiturik, parte-hartzaileei mahai teknikoan jasotako ekarpenak bidali zitzaizkien eta modu telematikoan gauzatu zen bileran ekintzak proposatu zituzten.

Bi bilera telematikoetan ez ezik, eragileek galde-sorta bidez ere beren ekarpenak egiteko aukera izan zuten:

1. Lehen bileraren ondotik, bilkura horretan aurkeztutako diagnostikoaren eta Euskararen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioaren inguruan.
2. Bigarren bileraren ondotik, Euskararen II. Plan Estrategikoaren gaineko ideien inguruan.

Foro telematiko batean parte hartzeko aukera ere izan zuten.

Mahai teknikoetan parte-hartu zuten eragileek egindako ekarpenen datuak honakoak dira:

2. taula. Euskararen II. Plan Estrategikoa moldatzeko lehen mahai teknikoaren ondoko ekarpen kopurua

Mahai teknikoak	Bidalitako galde-sortak	Jasotako erantzunak	%
1 Gizarte erabilera	21	8	38,1
2 Hiztun berriak	25	15	60,0
3 Zerbitzu publikoak	20	11	55,0
4 Adostasun soziala, prestigioa eta erakargarritasuna	27	10	37,0
5 Euskara, ekonomia eragile	15	9	60,0
6 Euskara Iruñean eta Iruñerrian	19	4	21,1
Galde-sortak, guztira	127	57	44,9
Ekarpen orokorrak		3	
Foro telematikoaren bitartez		6	

Iturria: Euskarabidea

3. taula. Euskararen II. Plan Estrategikoa moldatzeko bigarren mahai teknikoaren ondoko ekarpen kopurua

Mahai teknikoak	Bidalitako galde-sortak	Jasotako erantzunak	%
1 Gizarte erabilera	21	6	28,6
2 Hiztun berriak	25	10	40
3 Zerbitzu publikoak	20	7	35
4 Adostasun soziala, prestigioa eta erakargarritasuna	27	4	14,8
5 Euskara, ekonomia eragile	15	6	40
6 Euskara Iruñean eta Iruñerrian	19	6	31,6
Galde-sortak, guztira	127	39	30,7
Ekarpen orokorrak		3	
Foro telematikoaren bitartez		-	

Iturria: Euskarabidea

Ekarpen horiekin guztiekin 2021eko udaberrian behin betiko diagnosis ez ezik II. Plan Estrategikoaren zirriborrarako hasierako idatzaldia ere osatu zuen Euskarabideak.

1.6.4 Gizartearen parte-hartzea

2021-0_ -__tik aitzina Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroa jendaurrean ikusgarri utzi zen, hilabete batez, Gobernu Irekiaren webgunean.

Jasotako ekarpenak:

.....

.....

.....

1.6.5 Onespena

Euskarabideak Euskararen II. Plan Estrategikoaren behin-behineko idatzaldia Euskararen Nafar Kontseiluari aurkeztu zion eta horrek 2021eko ____aren __an dokumentuari oniritzia eman zion.

Buruenik, Nafarroako Gobernuak 2021eko _____aren __ean eginiko bilkuran *Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027)* dokumentua onetsi zuen eta behin betiko idatzaldi hori da argitalpen honetan aurkezten dena.

2. Euskara Nafarroan zertan den


Euskararen II. Plan Estrategikoa osatzeko prozesuaren abiaburuan euskarak Nafarroako Foru Erkidegoan duen egoeraren eta azken urteotako bilakaeraren azterketa egin da.

Bukaeran, osatutako diagnosiaren laburpen gisa, AMIA analisia erantsi da: euskarak Nafarroan dituen Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak. Analisi hori mahai teknikoetan aritu diren eragileekin kontrastatu zen eta, haien ekarpenei esker, biribildu.

2.1 Euskararen ezagutza

Nafarroan 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren % 14,1 euskalduna da (75.810 lagun), hau da, euskaraz ongi edo nahiko ongi egiteko gai da. Gainera, euskaldun hartzaileak, euskaraz zerbait jakin bai, baina ongi mintzatzen ez direnak, biztanleriaren % 8 dira (42.994 lagun) eta erdaldunak, euskaraz ez dakitenak, % 77,9 (418.425 lagun).

1. irudia. Euskararen ezagutza. Nafarroa, 2018 (%)




Iturria: *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018* (Nafarroako Gobernua, 2020).

Datu demolinguistikoak aztertzean Nafarroako gizartearen ezaugarri demografiko nagusiak aintzat hartu behar dira. 1991tik Nafarroako gizarte nabarmen aldatu da. Alde batetik, biztanleria handitu da (519.277 biztanle ziren 1991n eta 647.554 2018an) saldo begetatiboagatik, hau da, jaiotza eta heriotza kopuruen arteko alde positiboagatik baino gehiago migrazio saldoagatik, hots, immigrazioen eta emigrazioen kopuruen arteko aldeagatik. Izan ere, XXI. mende hasieratik hona atzerrian sortutako biztanleak nabarmen berretu dira (% 2,7 ziren 2000. urtean eta % 15,1 2019ko hasieran). Bestetik, Nafarroako gizarte zahartu da, bizi itxaropena gero eta handiagoa baita eta jaiotze tasa Europakoa baino

txikiagoa (9,2 jaiotza 1.000 biztanleko, Europakoa [EB-27] 10,1 izanda). Hori horrela, adinekoek Nafarroako gizartean duten pisu erlatiboa handitzearekin batera, gazteena txikitu da (65 urtetik goitikoak % 19,6 dira eta 15 urte beheitikoak % 15,5) (Nastat).

Testuinguru horretan, biztanleria euskaldunaren bilakaerari dagokionez, 1991tik 2018 bitarte, euskaldunek Nafarroako gizartean duten pisu erlatiboa etengabeki handitu da, 16 urteko eta urte gehiagoko nafarren % 9,5 ziren euskaldun 1991n eta % 14,1 dira 2018an. Zenbaki absolutuetan, 40.167 ziren 1991n eta 75.810 dira 2018an.

2. irudia. Euskaldunen bilakaera, ehunekoa eta kopurua. Nafarroa, 1991-2018




Iturria: *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018* (Nafarroako Gobernua, 2020) eta *VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016* (Eusko Jaurlaritza, 2019).

Euskaldun hartzaileen ehunekoa ere handitu da urte tarte horretan: 1991. urtean Nafarroako biztanleriaren % 4,6 ziren eta 2018an, % 8.

2.1.1 Euskararen ezagutza adinaren arabera

Sexuaren aldagaia ez da esanguratsua; adinaren aldagaiak aldiz, biziki eragiten dio Nafarroako biztanleriaren euskararen gaitasunari. Adin taldea zenbat eta gazteagoa izan, euskaldunen portzentajea orduan eta handiagoa da.


3. irudia. Euskararen ezagutza adinaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

Datu horiek 1990eko hamarkadaren hasieratik 2018ra izan duten bilakaerak erakusten du euskaldunen igoerarik handiena gazteenen artean (16-24 urte bitartekoen artean) gertatu dela: ia 15 puntuko igoera izan du, % 10etik % 24,9ra. Hala bada, gaur egun lau gaztetatik bat euskalduna da. Hogeita hamabost urtetik gorako herritarren artean euskaldunen pisu erlatiboak modu esanguratsuan egiten du behera.

4. irudia. Euskaldunen bilakaera adin taldeen arabera. Nafarroa, 1991-2018 (%).




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza, 2019) eta Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.1.2 Euskararen ezagutza hizkuntza eremuaren arabera

Biztanleria euskaldunaren ehunekoak nabarmen aldatzen da 18/1986 Foru Legeak, Euskarari buruzkoak, 5. artikuluan zedarrizten dituen hizkuntza eremuaren arabera. Eremu euskaldunearan 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren % 60,8 da euskalduna, eremu mistoan % 12,4 eta eremu ez euskaldunearan % 2,6.


5. irudia. Euskararen ezagutza hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).


1991tik 2018 bitarteko bilakaerari dagokionez, euskararen ezagutzak eremu mistoan izan du hazkunderik handiena: 7 puntu baino gehiagokoa (% 5,2 > % 12,4). Eremu ez euskaldunearan, igoera bi puntukoa izan da (% 0,6 > % 2,6). Eremu euskaldunearan, aldiz, euskaldunen ehunekoak bere horretan dirau, % 60 inguruan egonkor dago, gorabeheratxo batzuk tartean.

6. irudia. Euskararen ezagutzaren bilakaera hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

7. irudia. Euskaldunen ehunekoak eta kopurua hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2018.



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

Ehuneko horiek ordezkatzan dituzten kopuru absolutuei so eginez gero, 16 urteko eta urte gehiagoko 75.810 nafar euskaldun gehienak eremu euskaldunetik kanpo bizi direla ikusten da: 29.459 eremu euskaldunean (nafar euskaldunen % 38,9), 42.551 eremu mistoan (nafar euskaldunen % 56,1) eta 3.800 eremu ez euskaldunean (nafar euskaldunen % 5).


Euskaldun hartzailen kopuru absolutuei dagokienez, 16 urteko edo gehiagoko 42.994 nafar euskaldun hartzailleetatik gehien-gehienak eremu mistoan bizi dira: eremu euskaldunean 5.187 (nafar euskaldun hartzailen % 12), eremu mistoan 32.217 (% 75) eta eremu ez euskaldunean 5.590 (% 13).

2017an hizkuntza eremuen osieran gertatu zen lege aldaketak¹ eremuen egoera demolinguistikoari nola eragin dion ikusteko, 2016ko Inkesta Soziolinguistikoko datuak eta 2018ko datu soziolinguistikoak alderatu dira: eremu mistoan euskaldunen ehunekoak 1,1 puntu egin du gora (% 11,3 izatetik % 12,4 izatera) eta euskaldun hartzailen portzentajeak 2,6 behera

¹ 9/2017 Foru Legeak, ekainaren 27koak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen hizkuntza eremuen osiera aldatu zuen: udalerrri bat (Atetz) eremu mistotik eremu euskaldunera pasatu zen eta ordura arte eremu ez euskaldunekoak ziren 44 udalerrri eremu mistoan sartu ziren.

(% 12 izatetik % 9,4 izatera). Eremu ez euskaldunean euskaldunen ehunekoa bere horretan gelditu da (% 2,7 eta % 2,6) baina euskaldun hartzaileena ia erdira murriztu da (% 6,8 izatetik % 3,8 izatera). Beherakada hori azaltzean, honako hau hartu behar da kontuan: 2017an eremu ez euskaldunetik eremu mistora igaro ziren 44 udalerrriak euskararen egoera soziolinguistikorik onena zutenak izan ziren, hain zuzen.

8. irudia. Euskaldunen kopuruak hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2018.



Iturria: *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018* (Nafarroako Gobernua, 2020).


2.1.3 Euskararen ezagutza eskualdearen arabera

Hizkuntza eremuek baino zehaztasun geografiko handiagoak eskualdeen araberako banaketak ematen ditu. Azterketa honetan 4/2019 Foru Legeak, otsailaren 4koak, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarakoak zedarrizten dituen eskualdeak erabili dira. Eskualde baterako datu zehatzik ez denean (laginaren tamainaren arazoengatik), eskualde multzoari dagokiona aurkeztu da, datu fidagarriak bermatzeko.

Euskararen gaitasunik handieneko eskualdeetatik hasita, Baztan-Bidasoa eta Larraun-Leitzaldea eskualde multzoan 16 urteko edo gehiagoko biztanleriaren % 80 inguru da euskalduna eta % 6,8 euskaldun hartzailea. Sakanan, biztanleriaren % 42 da euskalduna eta beste % 14,2 euskaldun hartzailea.

Pirinioetako eta Pirinioaurreko eskualdeetan euskaldunen pisu erlatiboa % 20 eta % 30 artekoa da. Iruñerrian, biztanleriaren % 12,6 da euskalduna eta gainerako eskualdeetan euskaldunen pisu erlatiboa ehuneko 10etik beherakoa da.


9. irudia. Euskararen ezagutza eskualdearen arabera, 2018 (%).



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).


Ehuneko horien atzean dauden balio absolutuak xehakaturik, Nafarroan dauden 16 urteko edo urte gehiagoko 75.810 euskaldunen erdia Iruñerrian bizi da (38.259); bestalde, 42.994 euskaldun hartzaileetatik gehienak ere eskualde horretan bizi dira (28.701).

10. irudia. Euskaldun eta euskaldun hartzaile kopurua eskualdearen arabera. Nafarroa, 2018.



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

11. irudia. Euskaldunen kopurua eskualdearen arabera. Nafarroa, 2018.




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.1.4 Elebidunen hizkuntza gaitasun erlatiboa

Euskaldunei zein hizkuntzatan (euskaraz edo erdaraz) mintzatzen diren errazen galdeginik, emandako erantzunak hiru kategoriatan antolatu dira: euskal elebidunak (erraztasun handiagoa dutenak euskaraz mintzatzeko erdaraz egiteko baino), elebidun orekatuak (bi hizkuntzetan erraztasun bera dutenak) eta erdal elebidunak (erraztasun handiagoa dutenak erdaraz [oro har gaztelaniaz, baina beste erdarak ere izan daitezke] mintzatzeko euskaraz egiteko baino).

Hala bada, honela sailkatzen dira Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko euskaldunak hizkuntza gaitasun erlatiboaren arabera: % 16,4 euskal elebidunak dira, % 33,9 elebidun orekatuak eta % 49,7 erdal elebidunak.


12. irudia. Euskaldunen erraztasuna euskaraz eta erdaraz mintzatzeko. Nafarroa, 2018 (%)



Iturria: *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018* (Nafarroako Gobernua, 2020).

Bilakaera historikoari erreparaturik, 1991tik 2018 bitarte euskal elebidunen ehunekoak 24,2 puntuko jaitsiera izan du; eta elebidun orekatuen eta erdal elebidunen ehunekoak, aldiz, 7,3 eta 16,9 puntuko igoera izan dute, hurrenez hurren.


13. irudia. Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboaren bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)



Iturria: *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018* (Nafarroako Gobernua, 2020).

65 urteko eta urte gehiagoko euskaldunen artean dugu euskal elebidunen ehunekorik altuena (% 34,7). Gainerako adin taldeetan, 25 eta 50 urte bitartekoen artean batik bat, euskal elebidunen portzentajea franko apalagoa da. Gazteen artean euskal elebidunen eta elebidun orekatuen pisu erlatiboa nabarmen handitzen da.


14. irudia. Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboa adinaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

Adin taldeen hizkuntza gaitasun erlatiboaren bilakaera historikoak euskal elebidunen ehunekoaren txikitzea eta erdal elebidunenaren igotzea erakusten du adin talde guztietan. 1991n 35 urtetik goitiko euskaldunen artean euskal elebidunak ziren nagusi eta 2018an elebidun orekatuak eta erdal elebidunak dira gehienak.

15. irudia. Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboa adinaren arabera, bilakaera. Nafarroa, 1991 - 2018 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza, 2019) eta Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

Euskararen gaitasun erlatiboa nabarmen aldatzen da gune soziolinguistikoaren arabera. Euskaldunen portzentajea % 80 eta hortik goiti duten (4. gune soziolinguistikoko)

udalerrietako euskaldunen % 48,6k errazago egiten du euskaraz gaztelaniaz baino eta % 40,9k bi hizkuntzetan berdin egiten duela dio. Aldiz, euskaldunak % 20 baino gutxiago diren (1. gune soziolinguistikoko) udalerrietan % 3,9 eta % 28,8 dira balio horiek, hurrenez hurren.

16. irudia. Euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboa gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%)




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.1.5 Euskararen ezagutza eta atzerriko hizkuntzen ezagutza

Nafarroako euskaldunek gaztelaniaz ez ezik, atzerriko hizkuntzetan (ingelesez edo frantsesez) ere badakite Nafarroako biztanleriaren batez bestetik goiti. Izan ere, atzerriko hizkuntzen ezagutza handiagoa da nafar euskaldunen artean, euskaraz ez dakiten nafarren artean baino. Euskaraz ez dakiten 16 urteko eta gehiagoko nafarren % 22,8k daki ingelesez, frantsesez edo bietan. Aldiz, gaztelaniaz eta euskaraz dakitenen % 35,9k daki gainera ingelesez, frantsesez edo bietan.

17. irudia. Euskaldunen eta erdaldunen ingelesa edota frantsesa jakitea. Nafarroa. 2018 (%).




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

Nafarroan gazteak, eta batik bat euskaldunak, dira talderik eleaniztunena. Euskaraz ez dakiten 16 eta 24 urte bitarteko gazte nafarren artean, % 57,8k daki ingelesez, frantsesez edo bietan. Aldiz, gaztelaniaz eta euskaraz dakiten gazteen artean % 64,4 da horietaz gain ingelesez, frantsesez edo bietan ere dakiena.

18. irudia. Ingelesez edota frantsesez jakitea euskaldunen eta erdaldunen artean, adinaren arabera.

Nafarroa. 2018 (%).



Iturria: *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018* (Nafarroako Gobernua, 2020).


2.2 Lehen hizkuntza eta euskararen transmisioa

2018ko datuen arabera, Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria aintzat hartuta, % 9,1ek du euskara lehen hizkuntza (% 5,8k euskara hutsa eta % 3,3k gaztelaniarekin batera). Gainerako biztanleria (% 90,9) harturik, gehien-gehienek (% 84,9k) gaztelania dute lehen hizkuntza eta gainerakoek (% 6k) beste hizkuntza bat.

Bilakaera historikoari so eginez, 1991tik 2018 bitartean, euskara, soilik edo gaztelaniarekin batera, lehen hizkuntza izan duen 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren ehunekoak beheitixe egin du: % 10,2 zen 1991n eta % 9,1 da 2018an.

Euskara soilik lehen hizkuntza izan dutenen ehunekoaren serie historikoan 2018koa da baliorik apalena (% 5,8); aldiz, euskara eta gaztelania lehen hizkuntzak izan dituztenen serie historikoan 2018koa da altuena (% 3,3).

19. irudia. Lehen hizkuntzaren bilakaera. Nafarroa, 1991-2018 (%).




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.2.1 Lehen hizkuntza adinaren arabera

Sexuaren aldagaia ez da lehen hizkuntzari eragiten dion aldagai esanguratsua; adinaren aldagaia aldiz, bai. 65 urteko eta urte gehiagoko biztanleriaren artean dago euskara lehen hizkuntza bakarria izan duten herritarren ehunekorik altuena (% 6,9).

Gazteei dagokienez, % 15,1ek euskara, hutsik edo gaztelaniarekin batera, izan du lehen hizkuntza. Nabarmenezkoa da euskara eta gaztelania, biak, lehen hizkuntza izan dutenen portzentajearen igoera gazteen artean (% 10,1).

20. irudia. Lehen hizkuntza adinaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.2.2 Lehen hizkuntza eremuaren arabera

Euskararen Foru Legeak ezarritako hizkuntza eremuaren arabera azterturik, eremu euskalduneko herritar gehienek euskara dute lehen hizkuntza: % 53,4k (% 42,2k euskara du lehen hizkuntza bakarra eta % 11,2k gaztelaniarekin batera).

Eremu mistoko herritarren % 6,2k du euskara lehen hizkuntza (% 2,9k euskara hutsik eta % 3,3k gaztelaniarekin batera) eta eremu ez euskaldunean, herritarren % 1,2k du euskara, soilik edo gaztelaniarekin batera, lehen hizkuntza.

21. irudia. Lehen hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.2.3 Lehen hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera

Euskaldunen dentsitate handieneko gune soziolinguistikoetan (4.enean eta 3.enean) daude euskara, soilik edo gaztelaniarekin batera, lehen hizkuntza izan duten hiztunen ehunekorik altuenak, % 85,3 eta % 67 hurrenez hurren.

22. irudia. Lehen hizkuntza gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.2 4 Euskararen transmisioa

Nafarroako familietako hizkuntza transmisioa ezagutzearren, 2016an egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoa 3 eta 15 urte bitarteko seme-alabarik zuten inkestatuei galdetu zien zein hizkuntza irakatsi zieten seme-alabei.

Guraso biak euskaldunak direnean, % 77,6k euskara soilik transmititu du, % 16,9k euskara eta gaztelania eta % 5,5ek erdara hutsa.

Gurasoetako bat baizik ez delarik euskalduna, % 61,6k euskara ere transmititu du, eta % 38,4k erdara hutsa.




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza, 2019).

2.3 Euskararen erabilera

Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria aintzat hartuta, %11,8k erabiltzen du euskara neurri batean edo bestean:

- % 6k erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- % 5,8k euskara erabiltzen ohi du, baina erdara baino gutxiago.


24. irudia. Euskararen erabilera. Nafarroa, 2018 (%).



Iturria: *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018* (Nafarroako Gobernua, 2020).

Euskararen erabilerearen bilakaerari erreparatuz, 1991tik 2018ra hazi egin da. 2016 eta 2018koak dira ehunekoarik altuenak.

25. irudia. Euskararen erabilerearen bilakaera. Nafarroa, 2018 (%).




Iturria: *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018* (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.3.1 Euskararen erabilera adinaren arabera

Hizkuntzaren erabilera adinaren arabera azterturik, gazteenak (16-24 urte bitartekoak) dira euskara gehien erabiltzen dutenak, % 13,9k erabiltzen baitu euskara (% 5,7k erabilera trinkoa egiten du, hau da, erdara beste edo gehiago; eta % 8,2k ohikotasunez erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago).

50-64 adin tartekoen artean dago euskararen erabilera trinkoa egiten dutenen ehunekorik altuena, % 6,5.

26.irudia. Euskararen erabilera adinaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.3.2 Euskararen erabilera hizkuntza eremuaren arabera

Euskararen erabilera nabarmen aldatzen da hizkuntza eremuaren arabera. Eremu euskaldunean 16 urteko edo urte gehiagoko herritarren % 48k euskaraz erdaraz beste edo gehiago egiten du eta % 11,4k euskaraz erdaraz baino gutxiago. Eremu mistoan balio horiek % 2,4 eta % 6,9 dira hurrenez hurren. Eremu ez euskaldunean euskararen erabilera trinkoaren ehunkoa ez da %1era iristen eta euskararen erabilera ez trinkoa ehuneko baten goitixe, % 1,3.

27. irudia. Euskararen erabilera hizkuntza eremuaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.3.3 Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera

Euskararen erabilerearen gaineko datuetan alde handiak daude euskaldunen dentsitate handiko eta txikiko guneen artean. 4. eta 3. gune soziolinguistikoetan, eguneroko jardunean euskararen erabilera trinkoa (euskaraz erdaraz beste edo gehiago) egiten dutenak % 88,9 eta % 59,7 dira, hurrenez hurren.

1. eta 2. gune soziolinguistikoetan, eguneroko jardunean euskararen erabilera trinkoa egiten dutenen portzentajea apaltzen da % 1,7ra lehenengo gunerako eta % 10,2ra bigarren gunerako.

28. irudia. Euskararen erabilera gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020)

2.3.4 Euskararen erabilera gizarte esparruaren arabera

Erabilera esparrua ere euskararen erabilerearen aldagai esanguratsua da. Familiatik kanpo egiten ohi duten hizkuntzaz galdeginik, 16 urteko eta urte gehiagoko nafar euskaldunen artean % 55,2k egiten du adiskideekin euskararen erabilera trinkoa (beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago), % 45,7k udaleko zerbitzuetan, % 40,4k dendetan, % 33,9k banketxeetan eta % 32,8k osasun etxean.

29. irudia. Euskaldunen euskararen erabilera familia esparrutik kanpo. Nafarroa, 2018 (%).




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.3.5 Euskararen erabilera zerbitzu publikoetan gune soziolinguistikoaren arabera

Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuetan euskaldunek euskaraz egiten ote duten jakin nahian, udaleko zerbitzuetako eta osasun-etxeetako erabilerari erreparatuko diegu. Erabilera datu horiek Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko 2018ko Inkestan bildu ziren. Datuok desberdintasun esanguratsuak erakusten dituzte gune soziolinguistikoaren arabera.

Biztanleria euskaldunak **udaleko zerbitzuetan** egiten duen erabilerari dagokionez, 4. gune soziolinguistikoan euskaldunen % 92,3k beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz beste edo gehiago egiten du; 3. gune soziolinguistikoan % 82,7k, 2. gune soziolinguistikoan % 62,8k eta 1. gune soziolinguistikoan % 21,9k.


30. irudia. Euskararen erabilera udaleko zerbitzuetan, gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).



Iturria: *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018* (Nafarroako Gobernua, 2020).

Euskaldunek udaleko zerbitzuetan egiten duten hizkuntza erabilera eta osasun etxeetan egiten dutena alderatzean, **osasun etxeetan** euskaraz gutxiagotan egiten dutela ikusten da. Izan ere, osasun etxeetan lanpostu elebidunen ehunekoa apalagoa izaten da. Osasun etxean euskaraz beti edo gaztelaniaz beste edo gehiago, 4. gune soziolinguistikoan euskaldunen % 85,1ek egiten du, 3. gune soziolinguistikoan % 68,1ek, 2. gune soziolinguistikoan % 36,3k eta 1. gune soziolinguistikoan % 10,2k.


31. irudia. Euskararen erabilera osasun etxean, gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).



Iturria: *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018* (Nafarroako Gobernua, 2020).

Euskaldunek zerbitzu publikoetan egiten duten euskararen erabilera, zerbitzu hori ematen duten langile elebidunen ehunekoak baldintzatzen du; izan ere, langile elebidunak egoteak soilik ahalbidetzen du euskaldunek euskara erabili ahal izatea.

32. irudia. Euskara beti edo gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten euskaldunak. Udaleko zerbitzuetako eta osasun etxeko erabileraren arteko alderaketa, eremu soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa, 2018 (%).




Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

Hala, euskararen erabilera nabarmenki handiagoa da udaleko zerbitzuetan osasun etxeetan baino. Ondoriozta daiteke erabiltzeko aukera gehiago izateak (langile elebidunen ehuneko altuagoak) desberdintasun horri zuzenean eragiten diola.

2.4. Euskara sustatzearen gaineko jarrerak

Nafarroako 16 urteko edo gehiagoko biztanleen % 33,3 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 27,6 ez alde ez aurka eta % 39,1 aurka dago.


Biztanleria jakin baten hizkuntzaren ezagutza eta erabilera datuak bilakaera moteleko balioak diren bitartean, jarrerai dagozkien datuak askoz ere errazago aldatzen dira. Hori gertatzen da Nafarroako kasuan, 16 urte edo urte gehiagoko biztanleriak euskararen sustapenaren inguruan dituen jarrerai dagokienez. 1991tik 2016rako datuen bilakaera aztertuz, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak ia 13 puntuko igoera izan du (% 21,6 > % 33,3). Epe luzeko bilakaera positiboa izan bada ere, 2011tik 2016ra joera aldaketa bat jazo da eta euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak behera egin du (% 37,7 > % 33,3).

33.irudia. Euskara sustatzearen inguruko jarrerren bilakaera, 1991-2016. Nafarroa (%).

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritz, 2019).

2.4.1 Euskara sustatzearen gaineko jarrerak hizkuntza eremuaren arabera

Euskara sustatzeari buruzko jarrerren bilakaera aztertuz gero, alde nabarmenak daude hizkuntza eremu batetik bestera. 2011tik 2016ra, eremu euskaldunean eta mistoan ez dira asko aldatu ehunekoak. Eremu ez-euskaldunean aldiz, nabarmen egin du gora euskara sustatzearen kontrako jarrerak.


34.irudia. Euskara sustatzearen gaineko jarrerren bilakaera, hizkuntza eremuaren arabera, 2011-2016. Nafarroa (%).

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritz, 2019).

2.5. Euskarazko hedabideen kontsumoa

2018an egindako Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkestak aurreko astean entzundako, ikusitako edo irakurritako euskarazko hedabideen gainean galdeginik, erantzuna honakoa izan zen: 16 urteko eta urte gehiagoko nafar euskaldunen artean % 43,1ek paperezko prentsa idatzia euskaraz irakurri du eta % 39,3k prentsa euskarri digitalean; % 74,3k irrati, podcast edo telebista euskaraz entzun/ikusi du.


35. irudia. Euskaldunen euskarazko hedabideen kontsumoa. Nafarroa. 2018 (%).



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

Adinak ez dio euskarazko hedabide mota guztien kontsumoari berdin eragiten. Paperezko egunkari-aldizkarien kontsumoa handiagoa da 35 urtetik goitiko adin taldeetan; aldiz, idatzizko prentsa digitalaren kontsumoa nabarmen txikiagoa da adinekoen taldeetan. Irrati, podcast eta telebista hedabideen kontsumoa ez da adinaren arabera modu esanguratsuan aldatzen.


36. irudia. Euskaldunen euskarazko hedabideen kontsumoa adinaren arabera. Nafarroa. 2018 (%).



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

Udalerrietako euskaldunen dentsitateak, oro har, ez dio modu esanguratsuan eragiten euskarazko hedabideen kontsumoari. 1. gune soziolinguistikoko euskaldunen artean dago idatzizko prentsa digitalaren kontsumorik altuena (% 43,2), baina paperezko apalena (% 36,4). Berebat, 4. gune soziolinguistikoan dauden herri euskaldunetako euskaldunen artean idatzizko prentsa digitalaren kontsumoa txikiena da (% 31,8) baina, ordea, irrati, podcast eta telebista hedabideen kontsumorik altuena dago (% 86,6).

37. irudia. Euskaldunen euskarazko hedabideen kontsumoa gune soziolinguistikoaren arabera. Nafarroa. 2018 (%).



Iturria: Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018 (Nafarroako Gobernua, 2020).

2.6. Irakaskuntza eta helduen euskalduntzea

Euskararen hiztun berriak dira, batetik, eskolaren bidez euskaldundu direnak, eta bestetik, heldutan euskaldundu direnak.


2.6.1 Euskararen eta euskarazko irakaskuntza

Azken hamabost urteetan, 2006tik 2021era, 3 urteko ikasleen matrikulazioen artean, A eredu (euskara ikasgai duena) 8 puntu jaitsi da (% 28tik % 20ra), D ereduak (euskara irakasbide nagusi duena) puntu inguruko igoera xumea izan du (% 28,8tik % 29,7ra). D ereduari B ereduko balioak gehiturik², 2020-2021 ikasturtean ia % 30 egiten dute (% 29,9). G ereduak ia 7 puntuko igoera izan du (% 43,2tik % 50era).

² 2020-2021 ikasturtean B ereduan ikasleen % 0,2 baizik ez da matrikulatu. Nafarroan B ikasteredua D ikasteredutik hurbil dago (ez da EAEn bezalako). 159/1988 Foru Dekretuak, maiatzaren 19koak, Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskararen sartzea eta erabiltzea arautzen dituenak, honela definitzen du B eredu: ikasmila eta ziklo guztietan irakaskuntza euskaraz duena eta gaztelania irakasgaia ez ezik irakasgai baten edo biren irakasteko hizkuntza ere duena, hezkuntzako ikasmilen arabera.

2020-2021 ikasturtean 3 urteko haurren % 50 G ereduaren eskolatu da, % 30 D ereduaren eta % 20 inguru A ereduaren. Balio horiek ez dira azken hamar urtean nabarmen aldatu.

38.irudia. 3 urteko haurren matrikulen bilakaera ereduaren arabera, 2006-2021. Nafarroa (%).



Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak emandako informazioa, Euskarabideak landua.

2.6.2 Helduen euskalduntzea

Nafarroan helduen euskalduntzera bideraturiko zenbait aukera daude: Euskarabideko euskaltegia (Administrazioko langileei zuzendua), Zubiarte euskaltegia (16 urtetik gorako herritarrentzako zentro publikoa), Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialak, helduen formakuntzarako Hezkuntza Departamentuaren Erriberako taldeak eta gizarte ekimeneko zentroak (AEK eta IKA).

Helduen euskalduntzeko ikastegietako ikasle kopuruak gorantz egin du azken urteetan. Gizarte ekimeneko zentroak dira ikasle gehien dituztenak, baita hazkunderik handiena izan dutenak ere.

B eredu nolakoa den aintzat harturik eta B ikastereduko ikastaldeak eremu euskalduneko bi ikastetxek baizik ez baitituzte eta biltzen diren ikasleak bakan batzuk baizik ez baitira, datuen ustiaketarako maiz D eredukoekin bateratu ohi dira.

39. irudia. Helduen euskalduntzeko zentrozen matrikulazioen bilakaera, 2016-2020. Nafarroa.

	2016-2017	2017-2018	2018-2019	2019-2020
Euskarabideko euskaltegia	753	896	970	1.026
Zubiarte euskaltegia	1.275	1.247	1.266	1.281
Hizkuntza eskola ofizialak	893	829	917	718
Erriberako taldeak	-	-	-	150
Gizarte ekimeneko zentroak	1.647	1.614	1.753	2.054
GUZTIRA	4.568	4.586	4.906	5.229

Iturria: helduen euskalduntzeko zentroek emandako informazioa, Euskarabideak landua.

2.7 AMIA (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak)

Nafarroan euskara zertan den itxuratzeko xedez, hona hizkuntzaren egoera aztertzeko AMIA metodologiak eman duen emaitza, esan nahi baita, euskarak Nafarroan dituen ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak, bai laburki emana.

AHULEZIAK		
ADOSTASUNIK EZA	ERABILERA	SOZIOEKONOMIA
Adostasun politikorik eza eta gizarte polarizazioa euskarak Nafarroan izan behar duen tokiaren gainean. Euskararen Foru Legearen baliagarritasunaren inguruan ere, adostasunik eza.	Euskaraz egiteko normaltasun eta inertzia sozialik ez dago eta ezagutza ez da gizarte erabileran islatzen. Euskarazko hitzun anitzen gaitasuna eskasa da eta hori dagoke erabilera urriaren oinarrian.	Arlo sozioekonomikoan euskara bazterrekoa da.
HIZTUNAK	HIZKUNTZA ESKUBIDEAK	HEDABIDEAK
Euskarazko hitzun anitz galtzen dira behin eskolatze aldia akituz gero.	Legea ez da betetzen. Zerbitzu publikoetan euskara erabili ahal izatea ez dago bermaturik. Euskara jakitea arrunt lanpostu gutxitan da eskakizuna.	Hedabide nagusietan, erdarazkoetan, euskarak duen toki ttikia, edo tokirik eza.
KULTURA ESKAINTZA	HELDUEN EUSKALDUNTZEA	HAURRAK
Kultura programazioan eta eskaintzan gabezia handiak daude.	Urruti gaude euskara ikasteko eskubidea doakoa izatetik. Herri ekimeneko euskaltegiaren prekaritate handia dago.	Nafarroako haurren % 50ek euskararik gabeko eskolatzea du. Azken 10 urtean D ereduaren matrikulatze portzentajea ez da aldatu eta A ereduarena apaldu da.

EUSKARABIDEA	EUSKARAREN BALIOESPENA	EUSKARAREN DATUAK
Euskarabideak giza baliabide gehiago behar ditu. Nafarroako Gobernuaren beste departamentuekin lankidetzeta eta, oro har, hizkuntza politikaren zeharkakotasuna azkartu behar da, euskararen plangintza estrategikoa eraginkorra izan dadin.	Euskara jakitea ez da beti meritutzat aintzat hartzen Foru Administrazioaren lehiaketetan. Atzerriko hizkuntzak jakitea Nafarroa osoan balioesten da, euskara jakitea, aldiz, ez.	Euskararen diagnosi osoa egiteko eta plangintzaren ebaluaziorako datuak eta ikerketak (kuantitatiboak eta kualitatiboak) falta dira.

MEHATXUAK		
EUSKALGINTZA	BABESA ETA ZILEGITASUNA	PANDEMIA
Euskalgintza bizitasuna eta ekimena estrategikoa da baina horretan prekaritatea betikotzeko arriskua dago. Lankidetzeta sendotu eta egonkortasuna bermatu behar zaio.	Euskarak ez du Nafarroa osoan babes instituzionala eta zilegitasuna bermaturik. Dagoeneko atzera pausuak gertatu dira zenbait erakundetan: Nafarroako Gobernuan eta Iruñeko Udalean, kasu. Foru Administrazioan euskara gero eta gehiago erabiltzeko ahaleginek beti talka egiten dute erdararako jaidura eta inertzia ahaltzurekin.	COVID-19ko pandemiak euskarari desagerrarazi dio eta eragin duen krisiak euskara sustatzea bigarren mailako bihur dezake.
KONFRONTAZIOA	HEDABIDEAK	HIZTUN BERRIAK
Euskara Nafarroako gizartea zatikatzen duen elementutzat jotzen duen ikuspegia ez da erabat gaingiditu. Nafarroako hizkuntzen arteko parekotasuna landu eta zabaldu behar da gizartean.	Sektore estrategikotako landu behar da.	Euskaltegietan eta eskolan euskara ikasi dutenek gizartean (lanean eta beste jardueretan) euskaraz jokatzeko aukerarik ez badute, gizartean erdalduntako jokatu dute. Eskolaren bidez euskaldundu diren hiztun anitzek hizkuntzaren gaineko bizipen mugatua dute.
ARNASGUNEAK	BALIAGARRITASUNA	SOZIOEKONOMIA
Arnasguneetan euskararen bizitasunaren adierazle batzuek beheiti egin dute azken urteotan.	Euskararen baliagarritasun soziala azkartu behar da, bestela, gaitasunean izandako irabaziak galduko dira.	Arlo sozioekonomikoan euskara ez badago, hutsune handia gertatzen da. Enpresetan hizkuntza planak bultzatu behar dira. Dauden dirulaguntzak iragarri eta zabaldu behar zaizkie enpresa txiki eta ertainei horien berri izan dezaten.

INDARGUNEAK		
EUSKARAREN EZAGUTZA	GIZARTE ERREFERENTEAK	EUSKALGINTZA
Nafar lau gazteetatik batek ongi daki euskaraz. Euskararen ezagutza Nafarroako geografian ere hedatuz doa.	Gizarte erreferente euskaldunak daude, gero eta gehiago, arlo guztietan (enpresetan, kirolean, ikerketan, politikan, kulturean...)	Euskararen aldeko gizarte ekimena antolaturik dago eta bizitasuna du.
TOKI ENTITATEAK	EUSKARAZKO HEDABIDEAK	LANKIDETZA
Toki entitateek, oro har, urrats handiak egin dituzte euskara udal administrazioan eta udalerrietan sustatzeko.	Euskarazko hedabideek kalitatea dute eta gizartearen errotuta daude.	Euskarabideak euskalgintzarekin lankidetzaren harremana eta finantziarioa sendotu du azken urteotan.
NAFARROAKO GOBERNUA		ARNASGUNEAK
Hizkuntza politikak plangintza estrategikoa du. Euskararen egoeraren diagnosi osoa egiteko datu gehiago daude.	Foru Administrazioaren itzulpen zerbitzua antolatuago dago eta eraginkorragoa da.	Nafarroan euskarak arnasguneak ditu, non euskara eguneroko hizkuntza baita.

AUKERAK		
EZAGUTZA	ADMINISTRATIO ELEKTRONIKOA	ERABILERA
Nafar guztiek euskararen gutxienezko ezagutza izateak Nafarroako gizartearen euskararen onarpena zabaltzen lagunduko luke.	Administrazio elektronikoa garatzearekin hizkuntza eremukatzea zentzugabetzen da.	Euskararen erabilera handitzeko baldintzak badaude. Erabilera normalizatzen den neurrian etorriko da onarpen soziala, prestigioa eta despolitizazioa.
FORU ADMINISTRATIOA	HELDUEN EUSKALDUNTZEA	ETORRI BERRIAK
Departamentuetako hizkuntza planak onartzeko prozesua abian da eta hori zerbitzu publikoetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko oinarria izan daiteke.	Herri ekimeneko euskaltegien finantziarioa hobetu da eta ikasleendako bekak sortu dira. Euskarak ikasleak irabazteko aukerak daude.	Euskara etorri berriei hurbildu eta Nafarroan bertakotzeko bidetzat eskaini, euskarara batu daitezkeen herritarrak baitira.
GAZTEAK	ARLO SOZIOEKONOMIKOA	TEKNOLOGIA BERRIAK
Gazteendako euskara atsegin iturri bihurtzen duten bizipenak eskaintzea, gazteena adintalderik euskaldunena baita eta erabilera aukera handienak dituen.	Arlo sozioekonomikoan esperientzia eta praktika onak badira, gizarteratzeko modukoak. Euskara sustatzeak negozioari laguntzen diola ikusarazi. EAEn egin den arlo sozioekonomikoaren plangintza handiaren itzalean, EAEn eta Nafarroan dauden enpresak, euskara sustatzeko dinamikara erakarri.	Mundu teknologikoan eta kultura digitalean euskara sartzeko egin diren ahaleginak.

EUROPAKO FUNTSAK	ITZULTZAILE NEURONALAK	BIZIKIDETZA
Europako funtsak erakartzea eta baliatzea.	Itzultzaile neuronalek nabarmen hobetu dute euskara – gaztelania itzulpen lana.	Euskarak nafarren arteko bizikidetzarako eta gizarte kohesiorako duen balioa onartu da. Euskararen aldeko gizarte jarrerak indartzeko aukera.
IRUÑEKO ZERBITZUGINTZA	GAZTE EUSKALDUNAK, ELEANIZTUNENAK	EUSKARABIDEAREN EGOITZA BERRIA
Hiriburuak Nafarroa osorako zerbitzuak ematen ditu eta bertan euskara sustatzeak euskararen ikusgarritasuna biderka dazake.	Gazte euskaldunak dira eleaniztunenak, ingelesa edo/eta frantsesa dakitenen portzentajea nabarmen altuagoa baita gazte euskaldunen artean euskara ez dakitenen artean baino.	Euskarabideak egoitza berria du Iruñeko lehen zabalgunean, hiriburaren guneguneean. Horrek erakundeari ez ezik, euskarari ere, ikusgarritasuna eman dio.

3. Euskararen egoera hobetzeko eredu estrategikoa

3.1 Euskararen egoera hobetzea

Aurreko atalean azaldutako diagnosiak euskararen egoeraren ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak utzi ditu agerian. Hortik abiatuz, Euskaren II. Plan Estrategiko honek lehen plangintzak ezarritako ildoari jarraikiz, euskara beste egoera kualitatibo batera eraman nahi du.

Euskararen ezagutzari dagokionez, diagnosian azaldu bezala, azken 27 urteotan —1991tik 2018 bitarte— nafar euskaldunen ehunekoa 4,6 puntu hazi da (% 9,5 > % 14,1). Euskarak hitzunak irabazten ditu familia bidezko transmisioari, euskarazko eskolatzeari eta helduen euskalduntzeari esker, baina oraindik bere biziraupen eta garapen osoa sendotzen duen hitzun masa sendo-zabala izatetik urrun dago Nafarroan.

Edozein hizkuntzaren berreskuratze prozesuan gertatzen den bezala, euskararen egoeran ere belaunaldi berriak, ahal den gehien eta baldintzarik hoberenetan, hitzun bilakatzeak berebiziko garrantzia du. Diagnosian azalduenez, familia bidezko euskararen transmisioaren arloan gurasoen lehen hizkuntzaren arabera alde handiak daude eta, datuek darakutsatenez, guraso bat euskalduna duten familietan euskararen transmisioaren bermea hobetzeko dagoen tarte handia da. Familia bidezko transmisioak oraindik galerak ditu: guraso biak euskaldunak dituzten familien % 5,5ek ez die seme-alabei euskara irakasten; eta gurasoetako bat bakarrik euskalduna duten familien artean, % 38,4k ez du euskara transmititzen. Beraz, euskararen ondorengoenganatze tasa hobetzea lehentasun estrategikoa da.

Nafarroan, jaiotze tasa apalaren ondorioz, haurrek eta gazteek orain dela hiru hamarkada baino pisu demografiko erlatibo txikiagoa dute, baina euskaldun ehunekorik altuenak dituzten adin taldeak dira. 1991n 16-24 urte bitarteko nafar gazteen % 10 baizik ez zen euskaldun; egun (2018an) berriz, % 25 da. Hau da, euskarari irabazi demografikoak batik bat haur-gazteengandik datozkio. Beraz, batik bat hitzun horien beharrei ohartu beharko zaie.

Eskolaren bidez euskalduntzen diren haurrei dagokienez, aukera hori Nafarroa osora zabaltzea eta ziurtatzea premiazkoa da. Egun 3 urteko haur nafarren eskolatzeko matrikulazioen erdia G ereduan egiten da (haurrek eskolan euskararekin harremanik izan gabe), % 30 D ereduan eta % 20 A ereduan, euskara irakasgaia dela. Ikasereduen banaketa hori azken 10 urtean ia ez da aldatu.

Hori horrela, euskaldunen hazkundeari eutsiko bazaio, euskarazko hitzun berrien hizkuntzaz jabetzeko bideak (familia nahiz eskolatzeari) sendotu eta bermatu beharra dago.

Berebat, D eta A erduetako ikasleei ikasgelatik kanpo ere euskara erabiltzen segitzeko aukerak eman behar zaizkie, hizkuntzaren jabetza akademikoa ez ezik, bizipen lagunartekoa eta ludikoa ere izan dezaten; eta euskara etxeko mintzaira ez duten ikasleen kasuan, euskaraz ongi eta eroso mintzatzera irits daitezten. Hau da, belaunaldi berrien euskarazko sozializazio prozesua zaindu eta elikatu beharra dago. 2020tik bizi dugun Covid-19ko pandemiak ikasleen arteko hizkuntza desberdintasuna areagotu egin du. Haur anitzek euskararekin duten harremana eskolako jarduerara mugatzen da, eta konfinamenduan ezarri zen eskolen ixteak eta eskolaz kanpoko aurrez aurreko aisialdiaren etenak haur horiek euskararekin zuten eguneroko harremana franko ahultzea ekarri zuen. Horren ondorioz, ikasleen arteko hizkuntza arrakala larria sortu da, Euskalgintzako hainbat eragilek agerian utzi duenez.

Bestalde, pandemian kontsumo digitala handitu da eta, batik bat, haurrentako eta gazteendako euskarazko eduki kultural digitalen urritasuna gelditu da agerian. Gazte euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboko datuak ezaguturik (2016ko VI. *Inkesta Soziolinguistikoaren* datuen arabera, % 16,9k errazago euskaraz egiten du, % 20,6k euskaraz eta gaztelaniaz berdin egiten du eta % 62,6k errazago gaztelaniaz egiten du), berebiziko garrantzia du euskaraz egiteko erraztasuna handitzen lagunduko dien ekimenak abiatzea, hala aurrez aurre nola bide telematikoan. Aisialdiaz euskaraz gozatzeko aukera orok, telematikoek ere, helburu horri lagun diozaiokete.

Helduen euskalduntzeari dagokionez, azken urteotan euskara ikasten duten helduen kopurua hazi bada ere (2016-2017 ikasturtean 4.568 ziren eta 2019-2020 ikasturtean 5.229), bistan da euskara ikasteak erakargarritasun handiagoa izan dezakeela Nafarroan. Orobat, euskaldun hartzaileei (euskara zerbait dakitenei, nafarren % 8 diren horiei), euskaraz jabetzeko prozesua burutzeko eta erabilerara jauzia egiteko —hau da, hiztun aktibo bihurtzeko— aukerak nahiz baliabideak eman eta ugaltu behar zaizkie. Hondar urteotan euskaltegiei eta ikasleei dirulaguntzak handiatu zaizkie, baina oraindik, herritarrek euskara ikastea eskuragarriagoa eta merkeagoa izan dezatela egiteko bide luzea dago ibilkizun.

Buruenik, azken hamarkadetan atzerritik Nafarroara bildu diren herritarrei euskara bertakotzeko eta gure gizartean sartzeko aukeratzat aurkeztu behar zaie, mintzairara hurreratzeko eta hartaz jabetzeko bideak erraztuz.

Hala bada, familia bidezko transmisioa, euskarazko eskolatzea eta helduen euskalduntzea alor estrategikoak dira euskarazko hiztunak irabazten segitzeko. Euskararen ezagutza azkartzeko hizkuntza ikasteko aukerak ugaltu eta biziki sustatu behar dira, nafar guztiei, heldu nahiz haur, euskara ahal den baldintzarik hoberenetan ikasteko bidea zabalduz.

Gizarte erabilera hizkuntza baten bizitasunaren seinalea da. Egun, 16 urteko edo gehiagoko nafarren % 6k euskara sendo erabiltzen du (beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz beste edo gaztelaniaz baino gehiago) eta ia beste horrenbeste (% 5,8), euskaraz aritzen da, baina gaztelania baino gutxiago. Diagnosian azaldu bezala, azken 25 urteotan —1991tik 2018 bitarte— euskararen erabilera ez da hazi eta hondar hamarkadetan euskarak Nafarroan izan duen ezagutzaren igoera erabilerara ekartzeko ahaleginak egin behar dira. Beraz, egungo egoerak euskararen gizarte erabilerarako aukerak berretzea eta espazioak sortzea premia direla salatzen du. Haur-gaztetxoen euskararen erabilera piztea eta sendotzea lehentasunezkoa da eta, hizkuntza arlo ez-formalean (familiar, lagunartean, auzo-bizitzan...) errotu behar handia dago. Horretaz gain, euskara gizartearen arlo guztietan (arlo sozioekonomikoan, aisialdian, merkataritzan, hedabideen kontsumoan...) erabiltzeko aukerak ugaltzeko bideak jorratu beharra begi-bistakoa da. II. Plan Estrategiko honetan arlo sozioekonomikoari bultzada berezia eman nahi zaio, aurreko plangintzan hasitako bidetik, enpresek beren hizkuntza kudeaketan euskara sar dezaten eta hizkuntza planak egin ditzaten dirulaguntzak handituz, enpresen foroa sortuz eta Nafarroako gizarteari euskarak duen dimentsio ekonomikoa agertuz.

Zerbitzu publikoei dagokienez, Foru Administrazioari oharturik, Euskararen I. Plan Estrategikoaren gauzatzean departamentuetako hizkuntza planak onartu dira eta horiek betetzeko bidean daude. Horiekin jarraitzea eta zerbitzu publikoetako hizkuntza eskubideen bermea azkartzea hartu da funtsezko. Egiteko horretan, digitalizazioaren erronkari eta itzultzaile neuronalen aukerari bereziki heldu beharko zaio.

Azken urteotan toki entitate anitzek zerbitzu publikoak euskaraz emateko aitzinapen nabariak egin dituzte eta toki entitateen hizkuntza politikaren garapenari laguntza ematen segitzea aurreikusten du plangintza honek. Gune soziolinguistiko ezberdinen egoerari oharturik, udalerrri euskaldunetan edo euskararen *arnasgune* diren lekuetan euskarak gizarte bizitzan duen nagusitasuna zaindu eta sendotu beharrekoa da eta hala dago jasota plangintza estrategiko honetan, UEMA - Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearekin lankidetzan burutzekoa. Izan ere, hizkuntza orok kualitatiboki osoak eta trinkoak diren gizarte guneak behar ditu eta euskarak Nafarroan bereak baditu eta izaten segitu behar du. Horrekin batera, euskararen gizarte erabilera ahulen den eskualdeetan, erabilera handituko bada, neurri bereziak hartzea ezinbestekoa da.

Hala berean, hizkuntzaren gizarte garapena planifikatu beharra dago eta hori ezin izanen da behar bezala egin euskarak Nafarroan duen egoera soziolinguistikoa, orokorra nahiz arlokakoa, aldi-aldi ezagutzen ez bada. Beraz, ikerlan soziolinguistikoak eta euskararen egoeraren

bilakaerako adierazleak eskuratzen ahalbidetuko diguten neurketa eta azterketak egin beharko dira.


Euskara sustatzearen aldeko jarrerei dagokienez, 1991tik 2016 bitarte aldekotasuna nabarmen igo bada ere (% 21,6 > % 33,3), euskara indartzearen kontra agertzen den herritarren ehunekoa (gainera 2011tik 2016 bitarte handitu zena: % 34,5 > % 39,1) kontuan hartzekoa da. Bistan da horrek euskararen gaineko komunikazio lan berezia egitera behartzen duela hizkuntza politika instituzionala. Komunikazioa gakoa da euskararen gizarte irudia positiboki moldatzeko eta hizkuntzaren prestigioa goratzeko. Zeregin horretarako euskara herritar guztiei modu atseginean hurbiltzea, hizkuntzaren presentzia gizarte paisaian dinamizatzea, informazio eta komunikazio teknologietan mintzaira naturalki txertatzea eta halako ekimenak lantzea da bidea. 2019-2023 legegintzaldirako Programa Akordioan eta gero, 2020an, Nafarroa Suspertu Planean euskara Nafarroaren kohesio eta aniztasun faktoretzat jo da eta haren inguruan adostasun soziala eta politikoa sustatu beharra ikusi da. Hori bideratzeko, Euskararen II. Plan Estrategikoak ardatz bat izanen du berariaz mintzairaren gaineko adostasun sozialari, hizkuntzaren prestigioari eta erakargarritasunari helduko diena.

3.2 Eredu estrategikoa

Euskararen I. Plan Estrategikoak euskararen eta euskarak Nafarroako gizartean behar duen tokiaren gaineko paradigma berri bat proposatu zuen eta, funtsean, horri lotuko zaio II. Plan Estrategiko hau. Planaren erdigunean, hain zuzen ere, Nafarroako herritarrak daude, gizartea bere osotasunean. Diagnostikoak erakutsi ditu zeintzuk diren herritarren premiak, euskarara iristeko zein gabezia dagoen eta nola den presazkoa hizkuntzaren egoera hainbat esparrutan hobetzea. Horri erantzunez, Nafarroako Gobernuak bere hizkuntza politika eredu estrategiko batean egituratuko du.

Plan Estrategikoaren konfigurazioak lau bloke handi ditu, zerbitzuak garatzen dituen erakunde baten logikari jarraikiz:

40. irudia. Eredu estrategikoa



Iturria: Euskarabidea

Planteamendu horren logika ondokoa da:

Lehenik eta behin (A), gizarte eskariari erantzun behar zaio, euskara erabiltzeko aukerak zabalduz, herritarrek euskara ikasteko duten nahia asez eta hizkuntza honetan zerbitzuak eskainiz. Eskaera estimulatu eta elikatu egiten da. Horregatik, bloke honek izaera proaktiboa izan behar du, ulertzen baita eskaintzak berak bistaratu egiten duela eta eskaria sortzen.


Bigarrenik (B), euskararen gaineko ikuskera berria gizarteratzen da, hizkuntzaren irudiaren gaineko aldaketa positiboa lortzera eta interesa eta eskaera sortzera bideratuta. Euskararen irudi berriak hizkuntzari prestigioa ematen dio eta baliabide edo balio erantsi gisa proiektatzen du, gizartearendako onura eta itzulkin sortzaile gisa.

A eta B blokeek elkar elikatzen dute, euskararen gizarte bizkortasuna indartuko duen eskariaren asetze eta hauspotze dinamika batean.

Hirugarrenez (C), programa honek araudi esparru bat eta informazio soziolinguistikorako iturriak eskatzen ditu, ekimen hauek guztiak gauzatzea ahalbidetu eta errazteko.

Bi bloke nagusiek, gizarteari zerbitzuak emateari buruzkoa bata eta ikuskera berriari buruzkoa bestea, atal desberdinak dituzte. Atal hauek dira Planaren ARDATZ ESTRATEGIKOAK eratzten dituztenak, ondoko koadroan adierazten den gisan:

41. irudia. Planaren eredua eta ardatz estrategikoak



Euskararen irudi positibo bat gizarteratzea, hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko interesa sortuko duena, baita zerbitzuen eskaria ere.

ADOSTASUN SOZIALA, PRESTIGIOA ETA ERAKARGARRITASUNA

Euskara, modu atzeraezinean lotzea gizartearen balio positiboekin.

EKONOMIA ERAGILEA

Euskararen eta hizkuntza gisa dituen ezaugarrien aparteko balioa lotzea Nafarroako ekoizpen, teknologia eta berrikuntza sektoreekin.

Iturria: Euskarabidea

HIZKUNTZA ESPARRUA
 Arau bidezko estaldura eta datu soziolinguistikoak eskuratzeko Plan Estrategikoaren ekimenetarako.

Euskararen II. Plan Estrategikoak 6 helburu nagusi (ardatz estrategiko bakoitzeko bat), 42 helburu espezifiko eta 201 proiektu ditu:

42 irudia. Euskararen II. Plan Estrategikoaren helburu nagusiak, helburu espezifikoak eta proiektuak

Ardatzak	Helburu nagusiak	Helburu espezifikoak	Proiektuak
1.- Gizarte erabilera	1	9	51
2.- Hitzun berriak	1	6	25
3.- Gizarte zerbitzuak	1	7	41
4.- Adostasun soziala, prestigioa eta erakargarritasuna	1	4	28
5.- Ekonomia eragilea	1	8	31
6.- Hizkuntza esparrua	1	8	25
	6	42	201

Iturria: Euskarabidea

4. Ardatz estrategikoak

4.1. Gizarte erabilera

Helburu nagusia

1. Hitzun gehiagok eta gizarte arlo gehiagotan euskaraz egitea, euskaraz egiteko hitzunen ohitura sendotuz eta euskaraz egiteko gizarte aukerak zabalduz.

Helburu espezifikoak eta proiektuak

1.1 Helduen hizkuntza portaerak euskarara aldatzea eta euskararen erabilera aktibatzea.

1.1.1 Euskaraz aritzeko eta aditzeko ohitura hartzera eta hura sendotzera zuzendutako ekimenak garatu gizarte eragileekin lankidetzaz.

1.1.2 Euskara tartean den komunikazio egoeretan euskaldun hartzaileen, hau da, euskara ulertu baina ongi mintzatzera iristen ez direnen, parte hartzea sustatu eta ele biko elkarrizketen aukera bultzatu.

1.1.3 Interpretazio zerbitzuak bultzatu eta "herritar itzultzaile" aritzeko baliabideak eskaini, euskara ongi ulertzen ez duten hitzunei euskarazko jardueretan parte-hartzeko aukera zabaltzeko, ele biko ekitaldiak ugaltzeko eta euskaldunen hizkuntza eskubideei babes hobea emateko.

1.2 Euskarazko jardueren eskaintza handitzea.

1.2.1 Foru Administrazioak oro har antolatzen dituen (kirol, kultura, hezkuntza, prestakuntza...) jardueren programazioan euskarazko eskaintza handitu.

1.2.2 Toki entitateek kulturaren, kirolaren nahiz aisiaren arloetan antolatzen dituzten euskarazko jarduerak, bai eta euskararen erabilera indartzera zuzendutakoak ere, lagundu.

1.2.3 Gizarte eragileek egindako euskarazko jarduerak eta euskararen erabilera handitzea xede dutenak, lagundu.

1.3 Euskarazko baliabide eta eduki digitalak ugaltzea.

1.3.1 Euskaraz egindako edo euskaraz ere egitea ahalbidetzen duten aplikazioen eta programen (*softwareare*-ren, bilatzaileen, itzulgailuen eta halakoen) garapenari eta eskaintza handitzeari lagundu.

1.3.2 Nafarroako liburutegi digitalean (BiNaDin), ebiblio (<https://navarra.ebiblio.es>) delakoan eta eFilm (<https://navarra.efilm.online>) orrietan euskarazko funtsak handitu.

1.3.3 Wikipedian euskarazko argitalpenak bultzatu. (PR / NS, 132. proiektua: *Haur eta gazteentzako euskarazko eduki digitalen produkzioa eta erabilera sustatzea* lerro estrategikoari egokitzeko Euskal Wikilarien Kultura Elkartearrekiko hitzarmena handitu).

1.3.4 Sarean dauden euskarazko edukiak (euskarazko kultura adierazpenak, informaziozkoak, prestakuntzazkoak, aisialdikoak, sentiberatzekoak eta motibatzeak...) areagotzeko ekimenak garatu.

1.3.5 Euskarazko kultura digitala ezagutzera eman eta mundu digitalean euskaraz egitea sustatu.³

1.3.6 Euskararen Mediatekako funtsak egokitu, handitu eta horiek gizarteratzeko programak garatu. (PR / NS, 132. proiektua: Mediatekaren eta administrazioaren beste plataforma digital batzuen arteko lankidetzaren areagotu eta hauen edukiekin DBHrako proposamen didaktikoak egin).

1.3.7 Euskararen erabilerarako baliabide askotarikoak (itzulgailuak, denda eta saltokietarako errotulaziorako eta testugintzarako hiztegitxoak, agiri arrunten ereduak...) biltzen dituen gune birtuala sortu eta zabaltu, haren bidez aholkularitza linguistikoa eskaintzeko eta herritarrei nahiz erakundeetara (euskara zerbitzurik ez duten udalei, adibidez) euskara erabil dezaten laguntza emateko.

1.3.8 Gizarteak haur eta gazteei zuzendutako euskarazko eduki digital gehiago eskura izateko, laguntza-lerro berriak sortzea, sarbide publikoa eta doakoa bermatuz (PR / NS, 132. proiektua).

1.3.9 Kultur plataforma digitalekin harremanetan jartzea, eskaintza eleanitza zabaltzeko (PR / NS, 132. proiektua).

³PFJ / GFP, E01 helburu espezifikoa: ikus-entzunezko programak grabatzea sare sozialetan emateko, euskal kultur produkzioa ezagutarazteko gazteei, eta sortzaileak eta ikusleak elkartzeko aukera ematea.

1.4 Haurren eta gazteen euskararen erabilera handitzea.

1.4.1 Pandemiak aurrez aurreko aisialdiari eragin dizkion mugen aitzinean, haurrendako aisialdi aukera telematikoak sustatu.

1.4.2 Eskola kirola programa garatu euskaraz (D ereduan) eskolaturiko haurrendako.

1.4.3 Haurren eta gaztetxoek oporraldietan Nafarroan euskaraz antolatzen diren jarduerak (udalekuak, ludotekak, lantegiak...) iragartzea eta zabaltzea sustatu, toki entitateekin lankidetzan.

1.4.4 Aisialdi antolatuaren arloan haurrei, nerabeei nahiz gaztetxoei interesatzen zaizkien jarduerak euskaraz eskaintzea bultzatu.

1.4.5 Gazteen artean euskaraz egitea balio positibotzat indartzeko jarduerak (lehiaketak, hausnarketa saioak, berariazko lantegiak, elkarteak, etab.) antolatzeari lagundu. (PRN / NS, 132. proiektua: Nafarroako gazteei euskarazko online tresnetan prestakuntza espezifikoa ematea bultzatu, Sarean Euskaraz programaren edukiak egokituz. Eduki mota horren ekoizpena eta zabalkundea sustatzeko dauden laguntza-lerroak egokitu)⁴.

1.4.6 Haur-gazteekin jarduerak egiten dituzten kirol arloko eta aisialdiko monitore, hezitzaile, entrenatzaile, begirale eta antzekoek hizkuntza dinamizatorako estrategien gaineko prestakuntza saioak egin ditzaten sustatu.

1.4.7 Kirol arloko eta aisialdiko eragileekin neurriak (euskarazko prestakuntza eskaintzea, hizkuntza irizpideak ezartzea, sentiberatze saioak antolatzea, materialak prestatzea...) landu, haur-gazteei zuzentzen dizkieten ekintzak euskararen erabilera indartzeko eraginkorrak izan daitezten.

1.4.8 Haur-gazteendako aisiaren, kulturaren eta kirolaren arloan diruz lagunduriko jardueretan euskarak aski presentzia eta erabilera izanen duela bermatzeko neurriak baldintza agirietan sartzeko aukerak aztertzea.

⁴ PFJ / GFP, E02 helburu espezifikoa: gazteak, euskara eta teknologia berriak dira "Sarean euskaraz" proiektuaren ardatzak. Gazteek, etorkizuna izaki, ahalik eta hobekien prestatu behar dute beren burua teknologia berrien arloan, euskarak "etorkizun bizia" izan dezan. Pandemiak oso denbora gutxian areagotu du digitalizazioaren garrantzia, eta are beharrezkoagoa egin du prestakuntza teknologikoa sustatzea gazteen artean, eta euskara erabiltzea IKTetan.

1.5 Gizartean euskarazko hedabideen kontsumoa handitzea, hedabide horien jardueraren egonkortasuna eta kalitatea bermatuz, eta erdaraz diren hedabideetan euskarak duen tokia zabalitzea.

1.5.1 Euskarazko hedabideen sektorearen eta Euskarabidearen arteko komunikazio iraunkorrerako foro bat eratu.

1.5.2 Euskarazko hedabideen egonkortasuna bermatzeko eta kalitatea sustatzeko, finantzaketa formula onartu, kostu estandarretan oinarritua eta sektoreko eragileekin adostua.

1.5.3 Euskarazko hedabideek digitalizazioaren garaira egokitzeko dituzten inbertsio beharrak aztertu eta horiek egikaritzeko baliabideak esleitu.

1.5.4 Euskarazko hedabideek sortutako edukiak sareratzeko programa abian jartzeari lagundu.

1.5.5 Euskarazko telebistek dituzten berezitasunak aintzat harturik, haien finantzaketari egoki erantzuteko formula aztertu.

1.5.6 Euskarazko hedabideen eskaintza herritar guztiengana eta eskualde guztietara irits dadila estrategia landu sektoreko eragileekin, atentzio berezia euskararen ezagutza urriko eskualdeei ematen zaiela.

1.5.7 Haur-gazteendako ETB3 kanal tematikoa Nafarroa osoan har dadin bermatu. (PR / NS, 132. proiektua: Lehendakaritza Departamentuarekin lanak bultzatu, Nafarroa osoan ETB3 ikustea ahalbidetuko duen irtenbide tekniko bat lortzeko).

1.5.8 Clan haurrentzako kanal publikoa edukiak euskaraz ere emititzen hasteko behar diren lanak bultzatu (PR / NS, 132. proiektua).

1.5.9 Haurrentzako edukiak eskaintzen dituzten operadore pribatuekin harremana egiten hasi, euskarazko edukiaren eskaintza zabalagoa egin dezaten (PR / NS, 132. proiektua).

1.5.10 Erdaraz diren hedabideen programazioan euskararen presentzia sustatu.

1.5.11 Euskarazko hedabideen ekoizpenak, eskolan euskaraz edo euskara ikasten duten ikasle haur-gaztetxoek eta euskalduntzeko bidean dauden ikasle helduen komunikazio gaitasuna hobetzeko eta euskararen erabilera azkartzeko moldatzeko eta egokitzeko proiektuei lagundu.

1.5.12 Euskarazko hedabideen kontsumoa hiztun berrien artean handitzeko eta euskararen erabilera sendotzeko jarduerak (harpidetza bonoak, kasu) garatu.

1.5.13 Euskarazko komunikabide digitalekin lankidetzan aritu, euskararen sustapenerako (PR / NS, 132. proiektua).

1.6 Euskarazko kulturako sorkuntza produktuen eta jardueren eskaintza zabaltzea eta euskarazko kontsumoa handitzea.

1.6.1 Euskarazko kultura sorkuntza bultzatzeko ekimenak (dirulaguntzak, sariak, lehiaketak, etab.) sustatu. (PR / NS, 132. proiektua: kultur sektorearen jarraipena bermatzeko eta kultura mota horren kontsumoa sustatzeko dirulaguntzak).

1.6.2 Euskarazko kultura ekoizpenak ikusgarri egiteko eta haien kontsumoa sustatzeko jarduketak garatu.

1.6.3 Nafarroa osoko herritarrek euskarazko kultura eskaintza (musika, zinema, antzerkia, literatura, etab.) eskura izan dezaten ziurtatzeko neurriak hartu.

1.6.4 Euskarazko kultura produktuen irisgarritasuna eta haien kontsumoa handitzeko, behar diren baliabideak (itzulgailuak eta bestelakoak) gizartearen eskura jarri.

1.6.5 Euskararen inguruko kultur ekimenak bultzatzea, toki entitateekin eta udaletako euskara zerbitzuekin batera (PR / NS, 132. proiektua).

1.6.6 Euskara sustatu kultur adierazpideetan. Euskarari lotutako arte-sorkuntza berritzailea bultzatu, hala nola formazioa, ikerkuntza, ekoizpena, hedapena eta bitartekaritza. (Programa Akordioa 2019-2023, Kultura eta Kirola, 9).

1.7 Euskararen *arnasguneak* diren udalerrri euskaldunetan euskararen erabilera sendotzea.

1.7.1 Herritarren gehiengoak euskara dakien eta erabiltzen duen udalerrietan, herritarrak ahalduzko eta euskararen gizarte erabilerari euts diezaioten indargarri joka dezaketen ekimenak sustatu UEMArenkin batera.

1.7.2 Udalerrri euskaldunetan euskara ez dakiten herritarrei euskara hurbiltzeko programak abian jarri, toki entitate horiekin batera.

1.7.3 Udalerrri euskaldunetan bizitzera joan diren herritar berri erdaldunendako hizkuntza harrera protokolo eta programak bultzatu.

1.7.4 UEMAren, tokiko turismo sektoreko enpresen eta eragileen artean euskarazko turismo eskaintza sustatzeko proiektu pilotua garatu.

1.8 Euskararen ezagutza urriko eskualdeetan euskararen presentzia handitzea.

1.8.1 Euskararen ezagutza urriko eskualdeetan euskarari gizarte presentzia eta ikusgarritasuna emateko ekimenei modu berariaz lagundu, gizarte ekimeneko eragileekin elkarlanean.

1.8.2 Euskararen ezagutza urriko eskualdeetan euskarazko kultura jardueren eskaintza sendotu, batik bat haurrentakoak.

1.8.3 Euskararen ezagutza urriko eskualdeetan euskararen erabilera pizteko berariazko programak garatu eta gizarte ekimenez sortzen direnak sustatu eta babestu. Errealitate soziolinguistiko ezberdinetako nafar gazteen arteko harreman sareak sustatu, aurrez aurrekoak (topaketak, egonaldiak...) nahiz telematikoak.

1.9 Nafarroako euskalkiak eta euskararen aldaerak zaintzea eta hedatzea.

1.9.1 Nafarroako euskarazko mintzairak aztertzeke, zabaltzeke eta didaktikoki lantzeke proiektuak sustatu.

1.9.2 Euskara batuaren baliagarritasunaren ondoan, Nafarroako euskararen mintzamoldeen baliagarritasun komunikatiboa agerian jartzeke ekimenak garatu, batik bat horiek bizi-bizirik dauden eskualdeetan.

4.2 Hiztun berriak

Helburu nagusia

2. Euskarak hiztunak irabaztea, haurrak nahiz helduak euskarazko hiztun bilakatzeko prozesua Nafarroa osoan eta baldintzarik hoberenetan bermatuz.

Helburu espezifikoak eta proiektuak

2.1 Euskara haur gehiagoren lehen hizkuntza izatea.

2.1.1 Guraso bat bederen euskalduna duten familiek euskararen transmisioa berma dezaten sustatu (informazioa emanaz, kontzientziazio eta sentsibilizazio saioak eskainiz...).

2.2 Familietan euskararen erabilera handitzea eta haurren euskarazko sozializazioaren aldeko familien hizkuntza politikari laguntzea.

2.2.1 Etxean euskaraz egitea errazteko familiei eskaintzen zaizkien baliabideak (audioipuinak, bideoak, jolasak...) ugaltu, batik bat, digitalak.

2.2.2 Gurasoek eta haurrek euskara normaltasunez egiten laguntzeko familiendako foroak sustatu eta haien dinamizazioa babestu.

2.3 Haur gehiagok euskaraz eskolatzea eta ikasketak euskaraz egiteko aukera herritar orori bermatzea, haur eskoletatik hasi eta irakaskuntza goi mailetaraino.

2.3.1 Euskarazko eskolatzea sustatu, urte osoan eta komunikazio estrategia askotarikoa erabiliz.

2.3.2 Eskolatzearen bidez euskararen gutxieneko ezagutza (A eredu eskaintzen duena) unibertsalizatzeko aukera aztertu, Nafarroako haur guztiek eskolatzeko prozesuan Nafarroako berezko hizkuntza den euskararekiko harremana izan dezaten.

2.3.3 Haur eskoletan (0–3 urte bitarteko haurrendako) euskaraz eskolatzeko aukera Nafarroa osoan bermatzeko neurriak hartu.

2.3.4 Haur Hezkuntzan euskaraz ikastea eta, batik bat Nafarroako hegoaldean, euskara ikastea ere bultzatzeko programak eta estrategia iraunkorrak landu toki entitateekin eta gizarte eragileekin batera.

2.3.5 Euskara eskolaren bidez jabetu diren ikasleen euskarazko ahozko komunikazio gaitasuna hobetzera zuzendutako programak garatu eta baliabideak ugaltu.

2.3.6 Lanbide Heziketan euskarazko zikloen eskaintza handitu.

2.3.7 Nafarroako unibertsitateetan euskaraz eskaintzen diren kredituen kopurua emendatu.

2.3.8 Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan aritu, unibertsitatea euskararen eta euskaldunen sozializaziorako gune erreferentziala bihurtzeko eta euskararen erabilera sustatzeko proiektu pilotuak garatzeko.

2.3.9 Goi mailako ikasketetan eta lanbide heziketan jakintza arloei dagokien euskara teknikoa bereziki lantzea sustatu, lan mundura ateratzeaz dauden ikasleen euskarazko komunikazio gaitasun profesionala hobetzeko.

2.3.10 Euskara Helduen Hezkuntza arautuko eskaintzan sartu.

2.3.11 Irakasleei oinarritzko prestakuntza soziolinguistikoa eskaini eta tokian tokiko euskarazko zerbitzuen berri eman.

2.4 Haurrak eta nerabeak euskarazko hitzun bilakatzeko eta euskaraz sozializatzeko prozesua sendotzea eskolaz kanpoko aisialdi eta kirol arloetan.

2.4.1 Haur eta nerabeei eskolaren bidez ikasitako euskara esparru ez-formalean eta lagunartekoan sendotzeko aukerak ugaltu eskolaz kanpo euskaraz egiteko ohitura finkatu dakien.

2.4.2 Berariazko eskolaz kanpoko ekintza programa bat antolatu ikastetxeetan beretan, euskara irakasgai gisa ikasten duten haur eta nerabeek hizkuntza sendo dezaten jolasaren eta gozamenaren bidez.

2.5 Helduen euskalduntzea indartzea, Nafarroa osoan euskara ikasteko aukera bermatuz eta euskara ikastearen doakotasunera hurreratuz.

2.5.1 Herritar heldu gehiagok euskara ikastera animatzeko kanpainak antolatu toki entitateekin eta sektoreko eragileekin (publikoekin nahiz gizarte ekimenekoekin) batera.

2.5.2 Euskara ikastea eskubidetzat onartu eta doakoa izan dadin urratsak eman. (PR / NS, 135. proiektua: helduek euskara ikastea doakoa izan dadin ahalbidetzeko bidean, urte anitzeko eszenatoki batean lan egitea. Pertsonen beka emateko politika sustatzea eta beken zenbatekoa progresiboki handitzea).

2.5.3 Covid-19k ekarritako pandemiaren eta horren ondoko testuinguruan, helduek euskara ikasten jarraitzeko behar diren neurriak martxan jarri eta eginkizun horretan diharduten ikastegiei osasun eta segurtasun baliabideak bermatzeko lagundu. (PR / NS, 135. proiektua: helduei euskara irakasten jarraitzeko behar diren neurriak jarriko dira martxan, eta eginkizun horretan diharduten zentroetan osasun eta segurtasun prestakuntzan inbertituko da. Helduen euskararen irakaskuntzaren jarraipena bermatu, COVID-19aren ondorengo testuinguruan.

Dirulaguntzen deialdia helduei euskara irakasteko zentroetako eskakizun higieniko-sanitario berrietara egokitu).

2.5.4 Helduen euskalduntzearen sektorearen egonkortasunera begira elkarlanerako gunea sortu eragileekin honako hauek egiteko: arloko beharrak aztertu, neurriak adostu, maparen eta eskaintzaren gaineko azterketa egin, herri ekimeneko euskaltegiak eta administrazioko euskaltegiak uztartu eta herri euskaltegien finantzaziorako marko iraunkorra landu eta adostu.

2.5.5 Euskara ikasleak euskaraz egiten has daitezzen eta hiztun aktibo bilakatzen errazteko ekimenak (Mintzakide programa, kasu) garatzeari lagundu.

2.5.6 Euskarazko C2 maila Nafarroan ezartzeko prozesua abiarazi.

2.6 Kanpotik Nafarroara etorritako herritarrek euskara ikas dezaten, beren seme-alabek ere euskaraz edo euskara ikas dezaten erakartzea eta horretarako erraztasunak ematea.

2.6.1 Kanpotik etorritako herritarrei euskararen gaineko informazioa haien hizkuntzan eta haiendako esanguratsua diren moduen eta erreferenteen bidez emateko programa espezifikoa eta iraunkorrak landu toki entitateekin batera. (PR / NS, 133. proiektua: migratzaileentzako komunikazio eleaniztuna sustatu).

2.6.2 Tokiko herritar euskaldunak eta herritar etorri berriak elkartzeko eta esperientzia komunak partekatzeko foroak sortu.

2.6.3 Familia etorri berrien seme-alabei euskarazko eskolatzeari errefortzuak emateko toki entitateek paratzen dituzten baliabideak (eskolako lanak egiten laguntzeko saioak edo hizkuntza lantzeko jarduerak...) eta sortzen dituzten materialak babestu.

4.3 Zerbitzu publikoak

Helburu nagusia

3. Nafarroako administrazio publikoek zerbitzua euskaraz ematea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz.

Helburu espezifikoak eta proiektuak

3.1 Nafarroako sektore publikoko entitateen hizkuntza planifikazioa garatzea herritarrei zerbitzuak euskaraz emateko. (PR / NS, 133. proiektua: Administrazio Publikoan euskaldunen arreta sustatzea, suspertze-palanka gisa).

3.1.1 Euskarabideak Foru Administrazioko departamentuen eta erakunde autonomoen hizkuntza plangintza orokorra landu, koordinatu eta ebaluatu.

3.1.2 Euskarabideak Nafarroako sektore publikoko beste entitateen hizkuntza plangintzekiko aholkularitza eta jarraipena egin.

3.1.3 Departamentuetako eta erakunde autonomoetako ele biko lanpostu kopurua handitu, gutxienerako helburuak aurretik adostuz.

3.1.4 Ele biko zirkuituak ezarri eta ebaluatu. (PR / NS, 133. proiektua: herritarrei arreta emateko plaza elebidunak finkatzea).

3.1.5 Foru Administrazioko zerbitzuetako hizkuntza paisaia ele bikoa izan dadin plana landu.

3.1.6 Nafarroako Gobernuaren webgune korporatiboko edukiak ele bitan eta aldi berean argitaratu.

3.1.7 Agiriak (kartelak, idazkiak...) ele bitan emateko irizpideak zehaztu eta jarraibide praktikoak eman.

3.1.8 Departamentu guztietan hizkuntza planen garapenaz arduratuko diren euskara teknikariak lanean ari daitezen aukerak aztertu, Euskarabidearen koordinazioaz.

3.1.9 *Lexnavarra* euskaratzen jarraitu ele bitan osorik argitaratuko dela bermatzeko helburuarekin.

3.1.10 Nafarroako Gobernuaren nortasun korporatiboa arautzeko proposamena egin, elebitasuna bermatuz.

3.1.11 Foru Administrazioko euskara teknikarien profila zehaztu etorkizuneko erronkei erantzuteko, prestakuntza diseinatu, sustatu eta eskaini, toki entitateetako euskara zerbitzuekin eta unibertsitateekin elkarlanean.

3.1.12 Herritarrei Administrazioaren jabetzako baliabide elektronikoen bidez egiten diren informazioetara, zerbitzuetara eta transakzioetara (tramiteak, erregistro elektronikoa...) elektronikoki sartzeko euskaraz eta gaztelaniaz egonen direla bermatu. Herritarrei Administrazioeko zerbitzuak erabiltzeko garatuko den irisgarritasun unibertsalaren planetan Nafarroako bi hizkuntzak aintzat hartuko direla bermatu.

3.1.14 Nafarroa 2030 Estrategia Digitalak Gobernu Digitala garatzeko proiektuetan eta programetan herritarra euskaraz eta gaztelaniaz artatua izanen dela bermatzeko neurriak kontuan hartuko dira.⁵

3.1.15 Herritarrei arreta euskaraz emateko ekintzak bultzatu, sektore publikoa indartzeko (PR / NS, 132. proiektua).

3.2 Langile publikoak zerbitzua euskaraz emateko gaitzea eta administrazio publikoetan euskararen erabilera sustatzea.

3.2.1 Langileen euskarazko prestakuntza sustatu eta planifikatu, eta horien euskara maila egiaztatu.

3.2.2 Langileen etengabeko euskarazko trebatze teknikoa, lanpostuen komunikazio beharrei loturikoa, diseinatu eta garatu.

3.2.3 Langile euskaldunen eskura baliabide eta tresna egokiak jarri, haien lanpostuetan euskaraz zerbitzua ematea errazteko eta horretan autonomia handiagoa erdiesteko. (PR / NS, 133. proiektua: Administrazio Publikoetako langileen euskarazko formazioa bultzatu).

3.2.4 Erabilera sustatzeko programak (Aldahitz modukoak) abiatu langile elebidunek euskaraz egiteari laguntzeko.

3.2.5 Administrazioeko ele biko dokumentu estandarren banku bat osatu.

3.2.6 Zerbitzua euskaraz ere emateko gaitasuna duten lanpostuen identifikagarriak (mahaigainekoak, paparrekoak, sinadura korporatiboa, etab.) sustatu.

⁵ ED, *Eten digitala desagerraraztea. Gaitasuna digitala* erronka: Bultzatuko da herritarren gaitasun digitalak indartzea, baita eta Nafarroako Gobernuak, haren erakunde autonomoetako eta tokiko administrazioetako langile publikoena ere.

ED, *Laguntza eskaintzea herritar digital bihurtzeko trantsizioan* erronka: Eraldaketa digitalari eta digitalizazioaren eskubide eta betebeharrak buruzko Foru Legearen Proiektua. Aurrez aurreko zerbitzuak eta zerbitzu digitalak konbinatuko dira, eta laguntza eskainiko zaie herritarrei trebakuntza prozesuan.

ED, *Pertsonak ardatz dituzten zerbitzuak* erronka: Erabiltzailea ardatz duten zerbitzu digitalak garatuko dira, haren beharrak, itxaropenak, motibazioak eta gaitasunak ondo ezagututa. Ezagutza hori haien portaerarekin, eskaerarekin edo joerarekin lotutako datuen azterketatik eskuratuko da.

3.2.7 Administrazioaren komunikazioetan euskara erabiltzeko gidalerro elebidunak onartzea. (PR / NS, 133. proiektua).

3.3 Edukiek ele bitan behar dutenetan, eta horiek sortzeko beste biderik ez dagoenean, itzulpena baliatzea helburu hori lortzeko.

3.3.1 Itzulpen Atalaren antolamendua eta efizientzia lortzeko behar diren ekintzak gauzatu.

3.3.2 Itzulpen Atalari beharrezkoak dituen baliabideak jarri bere eginkizunak egoki betetzeko modua izan dezan.

3.3.3 Itzulpen Atalaren bidez, itzulpen kontuetan aholku eman bai Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren barruan, bai toki entitateei.

3.4 Nafarroako toponimia babestea eta zaintzea, hau da, biltzea, egoki kudeatzea, denen eskuragarri jartzea eta erabilera egokia bultzatzea; betiere, Administrazioan toponimia erabiltzen dutenekin eta kudeatzen dutenekin koordinatuta.

3.4.1 Nafarroako toponimiaren datu-basean mantentze-lanak gauzatu: bildutako informazioaren antolaketa hobetu, edukiak eguneratu eta datu basean gertatzen diren altak eta bajak ofizial bihurtzeko prozedura arautu.

3.4.2 Nafarroako toponimiaren datu-basearen bisorea hobetuz joan, informazioa ahalik eta egokien jartzeko herritarren eskura.

3.4.3 Toponimia gaietan eta lanetan aholku eman herritarrei zein gainerako administrazioei; betiere, Euskaltzaindiaren aholkuak kontuan hartuta, beharrezkoa gertatzen denean.

3.4.4 Nafarroa izendapen ofiziala onartua izan dadin Estatuko Administrazioarekin beharrezko bideak jorratu.

3.5 Herritarren hizkuntza eskubideak babestea eta bermatzea

3.5.1 Administrazioaren komunikazio protokoloetan herritarren hizkuntza hautua modu sistematikoan aintzat hartu.

3.5.2 Herritarrei zerbitzu publikoetan dituzten hizkuntza eskubideen gaineko informazioa eman.

3.5.3 Langile publikoen artean hizkuntza eskubideen begiratzearen gainean sentsibilizazio eta informazio kanpainak egin.

3.5.4 Zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeko inkesta edo prozeduretan hizkuntza arretaren gaineko informazioa bildu, herritarrak nahi duen hizkuntzan artatua izatea kalitate adierazlea izan dadin.

3.5.5 Biztanleria euskalduna % 50 edo gehiago duten eskualdeetan (3. eta 4. gune soziolinguistikoetan) Foru Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuetan herritarrak euskaraz artatuak izan daitezzen bermatzeko ekimenak abian jarri (ariguneak edo zirkuitoak).

3.5.6 Zerbitzuen mapa osatu UEMArekin lankidetzan.

3.6 Toki entitateekiko lankidetzaren sakontzea euskararen hizkuntza plangintzaren eta sustapenaren arloan.

3.6.1 Toki entitateei udalerrien eremuetan euskararen plangintza eta sustapena egin dezaten lagundu.

3.6.2 Toki entitateekiko koordinazio gune egonkorak sortu, maila teknikoan eta politikoan, elkarlaneko esparruak lantzeko.

3.6.3 Toki entitateek euskara planak egin ditzaten sustatu eta horretarako aholkularitza nahiz laguntza teknikoa eman.

3.6.4 Toki entitateetako euskara zerbitzuen mapa zabaldu dadin lagundu, zerbitzu berriei aholkularitza eta laguntza berezia eman.

3.7 Estatuko Administrazioak Foru Komunitatean ematen dituen zerbitzuetan euskararen erabilera bermatzea erraztea.

3.7.1 Euskararen erabilera sustatzeko Estatuko Administrazio Orokorrarekiko markoa adostu.

3.7.2 Herritar orok ele biko (gaztelaniaz eta euskaraz idatzitako) Nortasun Agiri Nazionala, gida baimena eta estatu mailako agiri ofizialak Nafarroan berean eskuratu ahal izateko neurriak hartu.

4.4 Adostasun soziala, prestigioa eta erakargarritasuna

Helburu nagusia

4. Euskararen eta haren sustatzearen aldeko adostasun soziala sendotzea eta hizkuntzak gizartean duen balioespena hobetzea.

Helburu espezifikoak eta proiektuak

4.1 Nafarroako hizkuntzen inguruko kontsentsua erdiestea.

4.1.1 Nafar guztiek euskara ikasteko eta erabiltzeko duten eskubide berberen eta euskarak Nafarroan behar duen tokiaren inguruan, gutxieneko adostasun soziala landu (foroak, jardunaldiak...) euskara eztabaida alderdikoitik modu atzeraezin eta betikoan ateratzeko eta euskararen gaineko iruditeria kolektibo positiboa zoru komuna bilakatzeko.⁶

4.1.2 Euskara Nafarroaren gizarte kohesiorako, berezko aniztasunerako eta bizikidetzarako gaketat hartzen duen ikuspegia jorratu eta gizarteratu, komunikazio estrategia koherente bat garatuz. (PR / NS, 129. proiektua: bizikidetzaz zibikorako jardueren programa bat garatzea, programan hizkuntza-komunitateen elkarbizitza, batez ere Nafarroako bi hizkuntzena, kontuan hartuz).

4.1.3 Gizarte eragileek euskararen aldeko ikuskera eta onarpen soziala Nafarroako jendartean zabaltzeko antolatzen dituzten ekimenak lagundu.

4.2 Euskararen irudia eta prestigioa hobetzea, euskarak Nafarroaren balio positiboekin eta etorkizuneko balioekin duen lotura azkartuz.

4.2.1-Euskalgintzaren euskararen aldeko diskurtso sendotasuna, barne bizitasuna eta, oro har, nafar euskaldunen ahalduntzea bizkortzera zuzendutako ekimenak, programak eta materialak sustatu eta lagundu.

4.2.2 Euskararen alderdi onuragarriak (pertsonalak, sozialak, akademikoak, intelektualak, kulturalak, profesionalak...) azaleratu eta balioan paratuko dituen komunikazio estrategia iraunkorra landu, Euskalgintzako eta gizarte orokorreko eragileen ahal den adostasunik handiena bilduz.

⁶ Programa Akordioa 2019-2023, 3.8, Hizkuntza Politika: Euskararen inguruan akordio sozial eta politiko zabala sustatu, Nafarroaren idiosinkrasia eta bertako errealitate soziolinguistikoa islatuko dituen, beharizanez erantzuneko diena eta Foru Komunitatean mintzatzen diren hizkuntzekiko harremana eta bizikidetzaz gauzatzeko askeak izaten jarraitzeko aukera emanen diguna, euskara behin betiko aldenaz alderdien arteko eztabaidatik eta liskarretik, eta herritarrengan diskriminazio-sentimenduak ezabatuz.

4.2.3 Euskararen ikusgarritasunaren, ezagutzaren edo erabileraren aldeko gizarte ekimenak (Korrika, Nafarroa Oinez, euskararen egunak nahiz asteak...) aitortu eta lagundu.⁷

4.2.4 Herritar gazteenak hizkuntzen ezagutzak duen balioaz eta hizkuntza aniztasunak aberastasun kultural moduan duen balioaz sentsibilizatzeko kanpainak egin.

4.2.5 Euskararen hautemate funtzionala, modernoa eta gaurkotasun bete-betekoa adierazten dituzten ekitaldiak (biltzar edo topaketa tekniko, zientifiko, profesionalak, teknologiari eta berrikuntzari lotutakoak..., dibulgatzaileak nahiz akademikoak) antola daitezzen sustatu eta lagundu.

4.2.6 Gizartearen hainbat esparrutan (kirolean, kulturean, esparru sozioekonomikoan eta abarrear) egiten diren jarduera arrakastatsuetan euskara sar dadin bultzatu.⁸

4.2.7 Nafarroako Gobernuak publizitate instituzionala ele bietan egin eta euskarazko zein erdarazko hedabideetan zabaldu.

4.2.8 Nafarroako Gobernuaren sare sozialetan euskararen erabilera gaztelaniaren parekoa izan dadin bermatu.

4.2.9 Agintari publikoak eta ordezkari nahiz arduradun politikoak beren lidergoak herritarrek euskara hautemateko moduan duen garrantziaren gainean sentsibilizatzeko eta, orobat, euskarari prestigioa emateko duten erantzukizunaz jabeazteko ekimenak garatu.

4.2.10 Gizartean erreferente diren norbanako "prestigidunek" (kirol, zientzia, ekintzailtza, zinema eta bestelako arloetakoek), batik bat gazteek, euskararen aldeko ekimenekin bat egin dezaten sustatu, euskararen irudi positiboa sendotzeko.

4.2.10 Euskararen erabileran nabarmentzen diren sozioekonomia eta kultura arloetako gizarte eragileen eta erakundeen praktika onak aintzatetsi, ikusarazi eta lan hori jendaurrean aitortu.

4.2.11 Udalerrri euskaldunen garapen kulturalki iraunkorra balioetsi eta euskararen *arnasguneak* Nafarroa osorako erreferente positibo eta erakargarri bihurtzeko ekimenak garatu UEMArekin batera.

⁷ PFJ / GFP, E04 helburu espezifikoa. Gazteak ardatz hartuta, Nafarroako Gobernuak balioa eman nahi die hizkuntza aniztasunari, eleaniztasunari eta Europako hizkuntzen ezagutzaren balioari. Helburua da hizkuntzen ezagutzari balioa ikusaraztea eta, batez ere, gazteak sentsibilizatzea hizkuntza aniztasunaren inguruan, kultura aberastasunaren elementu gisa, eta herritarrak motibatzea hainbat hizkuntza ikastera, propioak zein atzerrikoak.

⁸ PFJ / GFP, E07 helburu espezifikoa. Jendaurreko edo laguntza publikoaren bidez egindako kirol jarduera guztietan euskara ikusaraztea. Euskarazko kirol jarduerak sustatzea. Nafarroako Kirolaren Institutuak (NKI) euskararen erabilera bultzatzen du NKI eta federazioek antolatutako kirol jardueretan. Aurreikusitako gastua 20.000 eurokoa da eta Euskarabideak NKIren esku jartzen du.

4.3 Euskararen aldekotasuna zabaltzea eta beren errealitatek urrun sentitzen duten herritar nafarrak euskal hiztun komunitatera hurbiltzea.

4.3.1 Euskararekiko jarrera neutroa edo kontrakoa duten gizartearen sektoreen sentsibilizatzeko diskurtso eta estrategia berritzaileak eta integratzaileak jorratu, gizarte ekimeneko eragileekin batera.

4.3.2 Euskararen mundutik kanpoko gizarte eragileekin informazio eta komunikazio kanalak hobetu, euskara ez dakitenengana hobeki iristeko.

4.3.3 Nafarroako bi mintzairetatik abiatutako eleaniztasunaren onurak eta abantailak ezagutarazteko jarduketak garatu.

4.3.5 Errealitate soziolinguistiko ezberdinetako nafar gazteen arteko harreman sareak sustatu, aurrez aurrekoak (topaketak, egonaldiak...) nahiz telematikoak.

4.3.6 Euskararen ezagutza urriko eskualdeetan euskarari gizarte presentzia eta ikusgarritasuna emateko ekimenei berariaz lagundu, gizarte ekimeneko eragileekin elkarlanean.

4.3.7 Euskararen ezagutza urriko eskualdeetan euskararen erabilera pizteko berariazko programak garatu eta gizarte ekimenez sortzen direnak sustatu eta babestu.⁹

4.3.8 Euskararen irudi positiboa ematen duten berrien eta proiektuen agertokia erdarazko hedabide nagusiak ere izan daitezen bultzatu.

4.3.9 Nafarroako hego-ipar adiskidetzak sustatu eta babestu gizarte ekimenaren bidez, eta horiek ikusarazteko jarduera komunikatiboak landu eta lagundu.

4.3.10 Euskarabideak euskararen ezagutza txikia den eskualdeetan jarduerak antolatuko ditu, eskualde horietako herritar eta gizarte eragileekin elkarlanean (kultura, kirola, sustapena...).

⁹ED, Kulturaren ardatza: Teknologia berriei esker, herritar guztien eskura paratzen da kultura. Internet bidez partekatutako edukiak digitalizatzear gain (Nafarroako Kulturaren Atari Digitala), teknologia digital berriak aztertuko dira –hala nola errealitate birtuala, itzultzaile adimendunak–, guztia ere kultura Nafarroako herritar guztiengana hurbiltzeko eta kanpoko turismoa sustatzeko eta erakartzeko pizgarri gisa baliatzeko.

4.4 Euskara Nafarroaren errealitatearen berezko eta ezinbesteko osagarritzat hartzea, gizarte bizitzan eta hizkuntza paisaian haren agertzea ohikoa eta naturala dela.

4.4.1 Euskarak Nafarroaren izaeran eta nafarren historian duen tokia eta egungo Nafarroa ulertzeko duen balioa agertzeko eta hedatzeko ekimenak (erakusketak, ikus-entzunezkoak, argitalpenak, edukiak eta teknologiak...) sustatu, batik bat Nafarroako erdi-hegoaldean.¹⁰

4.4.2 Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatearen turismo sustapena egiteko argitara ematen dituen materialetan, duten formatua dutela (webguneetan, App-etan, liburuxketan, esku-orrietan...), euskara, Nafarroaren hizkuntza berezkoa eta kultura ezaugarria, aipatu eta ele bitan argitaratu. (PR / NS, 134. proiektua: euskararen sustapena turismo jasagarriaren eredu berrian txertatzeko kanpaina bat abian jartzea, tokikotasunarekin lotuz, benetakotasun eta identitate balio gisa)¹¹.

4.4.3 Estatuko eta atzerriko Nafarren Etxeen eta diasporako zentroen sarearen bitartez, euskara Nafarroako izaera eta errealitatearen elementu gisara hedatzeko jarduketak garatu.

4.4.4 Euskara ikusarazi eta haren presentzia gizartean handitu nahi duten proiektuen ezarpena (errotulazioa, kartelak, publizitatea, etab.) bultzatu eta lagundu.

¹⁰ PET / TPE, 6.06 neurria. Nafarroako Erresumaren historiari, hizkuntzari, kulturari eta abarri buruzko bizipen emozionalak birsortzea ahalbidetzen duten edukiak eta teknologiak garatzea.

¹¹ PET / TPE, turismoaren oinarritzko segmentua: kulturala. Nafarroako errealitate linguistikoari balioa eman, euskararen garrantzia eta berezitasuna ondare kulturalaren funtsezko elementu gisa.

PET / TPE, optimizazio-elementuak. Prestakuntza eta enplegua. Beharrezkoak diren neurri guztiak garatu pertsonak zerbitzu desberdin baterako prestatzeko, gaitasun linguistiko eta emozional egokiak izango dituen, profesionaltasun handiko testuinguru batean.

PET / TPE, 2.01 neurria. Turismo-esperientziaren kalitatea hobetzea turismoaren oinarritzko segmentuetan, lurralde nortasuneko elementuak txertatuz. Neurri honen helburua da Nafarroako esperientzia turistikoa hobetzea, turismoaren oinarritzko segmentuetan bidaia-proposamenak sortzea bultzatuz (landa-natura, kultura, Nafarroa Esentziala eta bilkurak), Nafarroako lurralde-nortasunaren alderdiak (kultura, natura, paisaia, historia, etab.) bereizgarri gisa txertatuz. Bidaia-proposamen horiek turismo-produktuen sorrera bideratuko dute turismoaren oinarritzko segmentuetan (landa-natura, kultura, Nafarroa Esentziala eta bilkurak, etab.), pakete hartzaile edo produktu-klubean bidez.

4.5 Euskara, ekonomia eragile

Helburu nagusia

5. Nafarroan aberastasuna eta balioa sortzera zuzendutako estrategia ekonomikoan euskara txertatzea eta arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera aintzat hartzeko hizkuntzen kudeaketa baten oinarriak paratzea.¹²

Helburu espezifikoak eta proiektuak

5.1 Nafarroako ekonomiaren jarduera sektoreetan euskarak duen tokia sendotzea.

5.1.1 Euskarabideak lantoki pribatuetan euskararen erabilera handitzeko planak eta ekimenak burutzeko ematen dituen dirulaguntzak eta baliabideak handitu eta sektorean laguntza horien komunikazioa eta zabalpena planifikatu.

5.1.2 Lantoki pribatuetan euskararen erabilera handitzeko dirulaguntzen balorazioa egin eta horien eragina areagotzeko aukerak aztertu sektoreko eragileekin.

5.1.3 Arlo pribatuko lantegiei eta enpresei digitalizazio prozesuak euskaraz garatzea eta on line salmenta euskaraz eskaintzea sustatu.

5.1.4 Nafarroako jarduera sektore desberdinek (herritarrekin harreman zuzena dutenek, lehen sektoreko enpresek, oinarritzko zerbitzuak eskaintzen dituztenek...) beren jardunean euskara erabiltzearen inguruan dituzten jarrerak, oztopoak eta aukerak aztertu, ekintza plan baterako oinarriak finkatu eta inplementatu.

5.1.5 Euskarabidearen eta arlo sozioekonomikoko eragileen (toki entitateen, enpresarien, merkatarien elkarteen, sindikatuen, kontsumo arloko elkarteen, elkargo profesionalen, garapen agentzien eta abarren) arteko koordinazio eta lankidetzarako foro baten osaera sustatu (Euskararen Nafar Kontseilua baliaturik), euskarak arlo sozioekonomikoan dituen beharrak identifikatu, ekintza programak adostu eta garatu elkarlana egonkortzeko.

5.1.6 Foru Administrazioaren baitan, Nafarroako arlo sozioekonomikoari eragiten dioten departamentuen arteko koordinazio eta lankidetzarako lan-mahaia osatu eta dinamizatu, euskara aberastasuna eta balioa sortzera zuzendutako estrategian txertatzeko.

¹² PR / NS, 132. proiektua: euskararen eragin ekonomikoaren ardatza indartzea.

5.2 Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzu profesioaletan euskararen presentzia eta erabilera areagotzea.

5.2.1 Kaleko merkataritzako eta zerbitzugintzako hizkuntza paisaian (errotulazioan, webgunean, irudi korporatiboan, etiketatzean...) eta komunikazioetan euskararen erabilera sustatu.

5.2.2 Zerbitzua euskaraz eman dezaketen saltokiak eta zerbitzuak identifikatu, euskara kalitate elementutzat eta balio erantsizat agertuko duten ekimenak garatu eta herritarrak horietan euskaraz egitera bultzatzeko ekimenak lagundu.

5.2.3 Merkatarien elkarrekin eta elkargo profesionalekin euskarazko zerbitzuak gizartean ezagutzera emateko aukerak aztertu (zerbitzuen mapa, katalogoak...).

5.2.4 Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak landu eta gizartean zabaltu. (PR / NS, 134. proiektua: aplikazioak eta tresnak ezartzea kontsumitzaileen eta merkatarien arteko elkarrekintza errazteko, euskararen erabilera soziala sustatzeko. PR / NS, 134. proiektua. Administrazioak, zerbitzu-kalitatearen elementu gisa, hurbileko merkataritzan eta herritarrei zuzendutako zerbitzu publikoetan euskararen erabilera sustatzea, erabilera zabaldua dagoen edo nagusia den eremuetan).

5.3 Langileen euskarazko gaikuntza hobetzea eta euskaraz lan egiteko baliabideak haien eskura paratzea.

5.3.1 Enpresetako langileei euskarazko prestakuntza eta etengabeko prestakuntza errazteko aukerak aztertu.

5.3.2 Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuak langabetuei eskaintzen dien prestakuntza eskaintzan euskara sartu.

5.3.3 Nafarroaren garapen ekonomikoaren funtsezko ardatzekin lerrokatutako Lanbide Heziketako titulazioak euskaraz (ere) eskaintzea sustatu.

5.3.4 Euskaraz lan egiteko behar diren baliabideak prestatu eta identifikatu (hiztegi digitalak, agiri ereduak, berriak, berriak, berriak, etab.) eta profesionalei ezagutarazi.

5.4 Euskarak arlo sozioekonomikoan duen balioa gizartean hedatzea eta euskara inbertsioarekin identifikatzen duen ideia sustatzea.¹³

5.4.1 Euskarak berrikuntza sozialean, hezkuntzan, hedabideetan, merkataritzan, turismoan eta gizartean, oro har, sortzen dituen ekarpenen balio ekonomikoa gizarteratu.

5.4.2 Euskarak Nafarroako enpresa jarduerari errentagarritasunaren zein gizarte erantzukizunaren ikuspegitik egiten dion ekarpenaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko, arlo sozioekonomikoko eragile publiko eta pribatuei zuzendu beharreko komunikazio plana diseinatu eta garatu.

5.4.3 “Euskara Nafarroako arlo sozioekonomikoan” jardunaldiak antolatu gaiari ikusgarritasuna emateko, sektoreko eragileekin egoera aztertzeko, esperientzia interesgarriak agertzeko, Nafarroako eta kanpoko praktika onak ezagutzeko, enpresa berriak erakartzeko eta gizartea sentsibilizatzeko.

5.4.4 Gizartean euskarazko zerbitzuen eskaera soziala eta kontsumoa bizkortzeko motibazio eta komunikazio kanpainak egin.

5.4.5 Enpresen eta eragile pribatuen praktika onak aitortu eta ezagutzera eman.

5.4.6 Zerbitzua euskaraz jasotzeko aukerak bezeroei eragiten dien inpaktuaren inguruko azterketa egin eta emaitzak gizarteratu.

5.4.7 Sormen industriren eta industria digitalen garapena eta turismo sektorearen bultzada, beren jarduna dela eta bi hizkuntzetan zerbitzuak eskaini ditzaketen sektore diren aldetik. (S³)¹⁴

5.5 Euskara balio erantsia den ekoizpen (produktua / zerbitzua) sektoreen edo euskararen erabilera enpresa ereduaren elementu bereizgarria den sektoreen bizitasuna eta ikusgarritasuna handitzea.

5.5.1 Euskarazko produktuak eta zerbitzuak ekoizten edo ematen dituzten eragileen sarea egituratua babestu.

5.5.2 Euskarazko produktuen eta zerbitzuen eta horien ekoizleen azokak, erakustaldiak, ekimenak eta jarduerak sustatu.

5.5.3 Arloko eragileekin aliantzak bilatu euskararen turismo, gastronomia eta merkataritza ibilbidea sortzeko.

¹³ PR / NS, 134. proiektua: Euskara tokiko kalitatearen balio gisa sustatu ekonomia eta gizartesektoreetan.

¹⁴ PET / TPE, 4.09 neurria: enpresa turistikoaren webguneak sustatzeko eta merkaturatzeko plataformen modernizazioa bultzatu, bereziki landa eremuko enpresa txiki eta ertainena. Enpresen digitalizazio turistikoa bultzatu (hizkuntzak, irudiak, testuak, produktuak, etab.).

5.6 Biztanleria euskalduna % 50 edo gehiago duten eskualdeetako (3. eta 4. gune soziolinguistikoetako) arlo sozioekonomikoan euskara biziagotzea.

5.6.1 Merkataritza, ostalaritza eta turismo arloetan euskararen erabilera kalitatearekin eta bertakotasunarekin lotzeko estrategia berezia garatu tokian tokiko eragileekin batera (eragileak euskara erabiltzeko aktibatuz, euskarazko zerbitzuaren identifikagarriak eskainiz eta bezero nahiz erabiltzaileak euskaraz kontsumitzera motibatuz)¹⁵.

5.6.2 Euskaldun dentsitate altuko eremuetan kokatutako enpresa handiei euskara planak egin dezaten sustatu.

5.6.3 Industria sektoreko enpresetan, euskara lan hizkuntza modura garatzeko proiektu pilotua garatu.

5.7 Euskararen erabilera handitzeko urratsak eman dituzten enpresen arteko saretzea bultzatzea eta haiei ikusgarritasuna ematea.

5.7.1 Euskara planak lantzen dituzten arlo sozioekonomikoko eragileen arteko foro egonkor bat eratu eta dinamizatu interes komunak lantzeko.

5.7.2 Eskainitako zerbitzuaren kalitatea areagotzeko euskararen erabileraren aldeko urratsak ematen dituzten Nafarroako enpresak identifikatu eta ikusgarritasuna lantzeko ziurtagirien sistema sustatu, arlo horretan diharduten eragileekin lankidetzan.

5.7.3 Euskarazko komunikazioa baliatuz beren enpresa-jardueran onura aipagarriak lortu dituzten enpresen esperientzia arrakastatsuak ezagutzera eman.

5.8 Diru-sarrera gehigarriak sortzeko bideak jorratzea, Nafarroan euskarak duen kokapena hobetzeari eraginen diotenak eta Euskarabideak itzulkin ekonomikoak sorrarazteko gaitasuna piztuko dutenak.

5.8.1 Diru-sarrera gehigarriak lortzeko aukerak aztertu, Nafarroako Gobernuak euskararen Plan Estrategiko honetan zein etorkizuneko plan estrategikoetan berriz inbertitu ditzan.

¹⁵ PET / TPE, 3.01 neurria: turismo arloko langileen, enpresaburuen eta teknikarien prestakuntza eta kualifikazioa, landa eremuko berezitasunak kontuan hartuta. Turismo arloko langileen eta enpresaburuen prestakuntza eta kualifikazioa enpresa-sarea indartzeko oinarritzko baldintza da, batez ere landa-eremuetan. Langileen eta enpresaburuen prestakuntza funtsezkoa da esperientziarako turismoa eskaintzeko, pertsonekin harremanetan egotea Nafarroako egonaldiaren funtsezko elementua izan dadin.

4.6 Hizkuntza esparrua

Helburu nagusia

6. Indarrean dagoen legedia eta plan honen helburuak betetzera zuzendutako arauz hornitzea, hizkuntza politikan gizartearen parte-hartzeko foroa modu eraginkorrean dinamizatzea, hizkuntza politikaren arloko beste erakundeekin lankidetzak sakontzea eta hizkuntza plangintzarako datu soziolinguistikoak, orokorrak nahiz arlokakoak, aldian-aldian eskuratzea.

Helburu espezifikoak eta proiektuak

6.1 Euskararen sustapenetako hizkuntza politika publikoak behar duen araugintza bermatzea.

6.1.1 Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren arauzko xedapenak onar daitezela proposatuko du Euskarabideak, Euskarari buruzko legedia garatzeko eta moldatzeko.

6.1.2 Herritarren hizkuntza eskubideak arautzeko proposamenak egingo ditu Euskarabideak, zerbitzuen edo produktuen hartzaileak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak diren aldetik.

6.1.3 Toponimia nagusiaren eta xehearen gaineko arautzea jarraitu. Datu basean agertzen diren altak eta bajak eguneratzeko prozedura finkatu.

6.1.4 Euskararen *arnasguneen* babes berezia onartzeko aukerak aztertu eta hirigintza, industria eta turismo arloko egitasmoek (herri lanek, garapen planek...) izan dezaketen eragin linguistikoa neurtzeko eta, beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak hartzeko bidea landu.

6.1.5 Finantzaketa publikoa jasotzen duten erdarazko hedabideek ekoizpenaren zati bat euskaraz egin dezaten bermatzeko sustapen neurriak aztertu.

6.2 Euskarak Nafarroan duen egoera soziolinguistikoa, orokorra nahiz arlokakoa, ezagutzeko datuak eta adierazleak modu sistematikoan eskuratzea, gizarteari eskaintzeko eta hizkuntza politika aldi oroz euskararen errealitatearen gaineko informazio oso eta eguneratua oinarritzeko.

6.2.1 Euskararen errealitatea eta bilakaera unean-unean modu zehatzean ezagutzen lagunduko duen Euskararen Adierazle Sistema (EAS) garatu, beste erakunde batzuekin batera.

6.2.2 Nafarroako euskararen egoera ezagutzeko, aldian aldiko ikerketa soziolinguistikoak eta mapa soziolinguistikoa egin.

6.2.3 Hizkuntzen kaleko erabileraren bilakaera ezagutzeko aldian aldiko kale neurketak egiteari lagundu.

6.2.4 Nafarroako gizartean euskararen inguruan dauden jarrerren oinarrian dauden zioak azaleratuko dituen ikerketa kualitatibo bat burutu.

6.2.5 Euskararen egoera soziofuntzionalaren gaineko ikerlan eta azterketa sektorialak egin (teknologiak, gazteria, etab.).

6.2.6 Nafarroako Lurralde Informazio Sistematan datu soziolinguistikoak eta euskararen baliabideen gainekoak geolokalizaturik agertzeko proiektua garatu.

6.3 Hizkuntza politika parte-hartzailerako eta zeharkakorako erakundeak euskararen aldeko hizkuntza politika publiko baterako eraginkorrak izatea.

6.3.1 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren parte-hartzeko organoa eta, euskararen plangintzan eta sustapenean, Nafarroako Gobernuaren organo aholku-emailea den Euskararen Nafar Kontseiluaren lana koordinatu eta modu eraginkorrean dinamizatu, horren barnean lanketa sektorialetarako eta euskararen etorkizunaren gaineko hausnarketa estrategikorako beharrezko lantaldeak sortuz.

6.3.2 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendaritza organoa den Gobernu Kontseilua, koordinatu eta dinamizatu, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren zeharkakotasuna gauzatzearren.

6.4 Berariazko lankidetzaren hitzarmenak kudeatzea.

6.4.1 Euskaltzaindiarekin berariazko lankidetzaren hitzarmenari jarraipena bermatu, hizkuntza arauen ezartze ondorioetarako Nafarroako Gobernuaren erakunde aholku emaile ofiziala baita, eta botere publikoek berari eskatu behar baitizkiote Euskararen Foru Legearen xedapen orokorretan ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak.

6.4.2 Eusko Ikaskuntzarekin berariazko lankidetzaren hitzarmenari jarraipena bermatu, Nafarroako Gobernuarekin lotura berezia duen entitatea baita.

6.5 Hizkuntza politikaren eta eleaniztasunaren arloko lankidetzaren foroetan modu aktiboan parte-hartzea.

6.5.1 Nafarroako Gobernuak Akitania Berriarekin eta Euskadirekin eratzten duen Euroeskualdea, garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako proiektuak garatzeko lankidetzaren espazio komuna, osatzeari segitu. (PR / NS, 132. proiektua: hizkuntza-politikak sustatzea Europako eta Euroeskualdeko testuinguruan).

6.5.2 Nafarroako Gobernuak Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin, euskararen sustapenari dagozkion alderdi batzuetan lankidetzaren bultzatzeko sinatua duen Hiruko Ituna izeneko hitzarmenari jarraipena bermatu hiru alderdien interesekoak diren proiektuak garatzeko.

6.5.3 Nafarroako Gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin, Kataluniako Generalitatearekin, Galiziako Xuntarekin, Balear Uharteetako Gobernuarekin eta Valentziako Generalitatearekin hizkuntza politikari buruzko interes komunekoen zenbait gaietan aritzeko sinatua duen protokolo orokorrari jarraipena bermatu.

6.5.4 Nafarroako Gobernuak Europako hainbat erakunde publikorekin eta gizarte erakunderekin eleaniztasunaren eta hizkuntza gutxituen gaineko gaietan aritzeko Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarean (*European Network to Promote Linguistic Diversity – NPLD*) kide izateari segitu eta era aktiboan parte hartu.

6.6 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren egoitza Iruñeko euskararen erreferentzia bihurtzea.

6.6.1 Euskarabidearen egoitzako areto nagusian euskarazko kultura jarduerak eskaini, programa erakargarri bat antolaturik. (PR / NS, 3.8, Hizkuntza Politika: Euskarabidea organismo autonomo gisa mantendu, gaur egun dituen eskuduntzekin, eta bere jarduerarako aski aurrekontu eta baliabide emanik. PR / NS, 132. Proiektua: Euskarabidea egoitza berriari finkatzea.).

6.6.2 Euskarabidearen egoitzako areto nagusia, euskara sustatzeko Euskalgintzak antolatzen dituenetarako erabilgarri uzteko prozedura ezarri eta aukera hori iragarri.

6.6.3 Euskarabideko liburutegia soziolinguistika gaietan liburutegi espezializatua bilakatu eta haren funtsak Nafarroako gizartearen eskura jarri.

6.7 Finantzaketa eta baliabide ekonomikoak bilatzeko plana garatzea, Plan Estrategikorako funts gehigarriak eskuratzea ahalbidetuko duena eta euskararen prestigioa handitzeko balio izanen duena.

6.7.1 Nafarroak Bruselan duen bulegoarekin koordinatuz, Nafarroako Gobernua kide den erakundeetan finantzaketa eta funtsak bilatzeko bideak aztertu, esate baterako, Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen bidez edota POCTEFA) delakoaren bidez.

6.8 Euskarabidearen organigrama, aurrekontuak eta giza baliabideak plangintza estrategikoaren helburuekin lerrokatzea erakundeak kudeatzen duen hizkuntza politika publikoaren eraginkortasuna handitzeko.

6.8.1 Euskarabidearen egitura organikoa Euskararen II. Plan Estrategiko honen kudeaketa eraginkorraren mesedera moldatu, helburuen arabera antolatu, dituen planteamenduak bat etortzea Plan Estrategikoarekin eta erakundeak behar duen aurrekontua eta egitura organiko egokienaz hornitu.

6.8.2 Euskarabideko langileei Euskararen II. Plan Estrategikoaren kudeaketa egokirako beharrezko prestakuntza eman.

5. Jarraipena eta ebaluazioa

Plan Estrategikoaren jarraipenari eta ebaluazioari ikuspegi bikoitzetik ekiten zaio. Alde batetik, ekintzen gauzapeanaren kontrol egokia bermatzea, modu erraz eta eraginkor batean hori egitea ahalbidetuko duen tresna multzo baten bidez; bestetik, erdietsitako emaitzak eta eragina ebaluatzea, zehazturiko helburuen betetze-mailaren balorazioaren bidez.

5.1 Jarraipena

Planaren ezarpenaren etengabeko jarraipena egin ahal izateko beharrezko mekanismo eta tresnak ezarri dira. Horrela, une oro jakinen da zein den ekintzen gauzatze maila eta erdiesten ari diren emaitzak, neurriak hartu ahal izanen dira balizko desbideratzeak zuzentzeko, eta inplikaturiko eragile guztien eta, oro har, herritarren eskura jarri ahal izanen da, erabateko gardentasunez, Planaren gauzatze mailaren egoera.

Ondoren, jarraipena egitea ahalbidetuko duten tresnak jasotzen dira:

Ekintzen planifikazio xehakaturia

Plana osatzen duten 201 ekintzak, ondoko 6 urteetan garatu beharko direnak, ekintza fitxa batean zehaztuko dira. Bertan jasoko dira ekintza horien jarraipen egokia egiteko behar diren elementuak: arduradunak, epeak, parte-hartzaileak, erdietsi beharreko produktu/emaitzak, kostua, etab.

Euskarabidearen Gobernu Kontseilua

Euskarabidearen Gobernu Kontseilua, erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 6ko 303/2019 FORU DEKRETUAK arautu zuen. Gobernu kontseiluan Gobernuko departamentuek parte hartzen dute. Horrela, hizkuntza politikaren zeharkakotasuna eta koherentzia bermatzeko, Gobernu Kontseiluari egiazko organo ebazle bihurtzea dagokio, halako moldean non Plana gauzatzeko departamentu guztien konpromisoa eta inplikazioa bermatuko duen.

Departamentuetan *euskara planak* abiatu dira eta plangintza horiek funtsezkoak dira Plan honen 3. ardatza garatzeko.

Euskararen Nafar Kontseilua

2015-2019 legegintzaldian Euskararen Nafar Kontseiluaren osaera aldatu zen haren aniztasuna eta eraginkortasuna hobetzeko. Kontseiluaren konfigurazio berriak aukera eman die Nafarroan euskararen inguruan lanean ari diren entitate, talde eta erakundeei parte hartzeko. Kontseilu honi ere dagokio Plan Estrategikoaren gainbegiratze, zuzentze eta bultzatze lana.

Talde teknikoa

Plan Estrategikoak arduradun bat izanen du plangintzaren garapena zaindu eta koordinatuko duena. Ardatzetako bakoitzak *lider* bat izanen du. Ardatzaren liderraren ardura funtsezkoa da ardatzaren helburu nagusia eta espezifikoa betetzeko garatu beharrezko proiektuak koordinatzeko eta bultzatzeko. Halaber, Planaren jarraipena antolatzeko eta dinamizatzeko teknikari bat izanen da, barne nahiz kanpo komunikazioaz arduratzen dena.

Talde teknikoa Plan Estrategikoaren arduradunak, ardatzen liderrek eta jarraipen nahiz komunikazio teknikariek osatuko dute.

Jarraipen txostenak

Plan Estrategikoak urteko ekintza plana izanen du eta urtean behin jarraipen txosten bat egingen da. Bertan zehaztuko da zein den proiektuaren gauzatze egoera, egindako lanaren gainean kontu emateko Euskarabidearen Gobernu Kontseiluari eta Euskararen Nafar Kontseiluari zein, oro har, herritarrei.

5.2 Ebaluazioa

Plana prestatzeko prozesu guztian zehar, une oro, gogoan izan da Plana diseinatzeko eta gauzatzeko tenorean ebaluazioa barne hartu behar zela. Ekintzen gauzatze mailaren jarraipen operatibotik harago (epeak, mugarriak, kostua, etab.), funtsezkoa da politika publiko hau ezartzeko prozesu guztian zehar erdietsitako emaitzak eta eragina ebaluatzea.

Diagnostikotik abiatuta, aski argazki zehatza dago euskarak Nafarroan duen errealitatearen gainean. Horrek abiaburuko erreferentziatzeko balioak ekartzen dizkio adierazle bakoitzari eta, horrela, bere garaian baloratu ahal izanen da zein izan den bilakaera eta, ondorioz, zehaztu diren helburuen gauzatze maila.

Hala ere, prozesu honetan, argi ikusi da, era berean, jarduera arlo edo lan ildo zenbaiten gainean dagoen informazioa urria dela edo informaziorik ez dagoela. Lehen plangintza estrategikoan, 2016–2019 epealdian, Euskararen Adierazle Sistema elikatze ohiko ikerketa demolinguistikoez (inkesta soziolinguistikoez eta Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkestaz) gain, ikerketa monografiko batzuk egin ziren (helduen euskalduntzearen arloan eta arlo sozioekonomikoan) eta halako ikerketa gehiago egin beharko dira hizkuntza politikaren kudeaketa eta jarraipen egokirako ezinbestekoak baitira. Euskararen gaineko datuak sistematikoki eskuratzeko kultura hedatu behar da Foru Administrazioan.

Horrekin guztiarekin, hautaketa lana egin da, erabiliko ditugun adierazle guztien artean eragin eta garrantzi handienekoak aukeratzeko: horiekin aginte taula osatu da, epe ertain eta luzean baliagarri izanen zaiguna baloratzeko Planean zehazturiko estrategiak bat egiten ote duen finkaturiko helburu nagusien gauzatze mailarekin eta, funtsean, aldaketak eragiten ote dituen xede dugun errealitate soziolinguistikora iristeko bidean.

5.3 Aginte taula

Aginte taula osatzen ari gara.

6. Memoria ekonomikoa

Memoria ekonomikoa osatzen ari gara.

7. Eranskina

Mahai tekniko telematikoetan parte-hartu duten eragileak

Ondoko zerrendetan mahai teknikoetan, aldez edo moldez —hau da, bilera telematikoetan edo galdetegia betez— parte-hartu duten eragileak bildu dira:

1 Gizarte erabilera

- 1 UEMA – Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea
- 2 ADI - Nafarroako Institutu Zuzendarien Elkartea
- 3 Euskaltzaleen Topagunea
- 4 Karrikaluze euskaldunon topagunea
- 5 Karrikiri Iruñeko Euskaldunon Elkartea
- 6 Euskokultur Fundazioa
- 7 Zaldiko Maldiko Kultur Elkartea
- 8 Biltoki elkartea
- 9 Tokikom toki komunikabideen bateragunea
- 10 Euskalerrria Irratia
- 11 Xaloa TB
- 12 Berria Egunkaria
- 13 Euskalgintzaren Kontseilua
- 14 Hekimen Euskal Hedabideen Elkartea
- 15 Nafarroa Iparraldeko Euskara Mankomunitatea
- 16 Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
- 17 Gazteriaren Nafar Kontseilua
- 18 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua

2 Hiztun berriak

- 1 Euskararen Nafar Kontseilua (Izaskun Arratibel)
- 2 Euskararen Nafar Kontseilua (Xabier Erize)
- 3 Gazteriaren Nafar Kontseilua
- 4 Euskalgintzaren Kontseilua
- 5 Nafarroako Eskola Kontseilua
- 6 Nafarroako Gobernu Unibertsitate Zuzendaritza Nagusia
- 7 Hekimen Euskal Hedabideen Elkartea
- 8 NIE - Nafarroako Ikastolen Elkartea
- 9 Sortzen Elkartea
- 10 Nafarroako Unibertsitatea
- 11 UEU - Udako Euskal Unibertsitatea
- 12 Haur Eskoletako Gurasoen Elkartea
- 13 Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala
- 14 Tuterako Hizkuntza Eskola Ofiziala
- 15 Zubiarte Euskaltegia
- 16 AEK
- 17 IKA
- 18 Bai & Bai
- 19 Nafarroako EGA Batzordea
- 20 Berribeitiko Udaleko Euskara Zerbitzua
- 21 Burlatako Udaleko Euskara Zerbitzua
- 22 Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
- 23 Izarbeibarko Euskara Zerbitzua
- 24 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua
- 25 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua

3 Zerbitzu publikoak

- 1 Euskalgintzaren Kontseilua
- 2 Hizkuntza Eskubideen Behatokia
- 3 Nafarroako Gobernu Kontseilua eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusia
- 4 Nafarroako Gobernu Kontseilua eta Ogasun Departamentua
- 5 Nafarroako Gobernu Kontseilua eta Hezikuntza Departamentua
- 6 Eusko Ikaskuntza
- 7 UEMA – Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
- 8 Sortzen Elkartea
- 9 Nafarroa Iparraldeko Euskara Mankomunitatea
- 10 Iruñeko Euskara Zerbitzua
- 11 Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
- 12 Uharteko Udaleko Euskara Zerbitzua
- 13 Antsoingo Udaleko Euskara Zerbitzua
- 14 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua

4 Adostasun soziala, prestigioa eta erakargarritasuna

- 1 Eusko Ikaskuntza
- 2 Euskaltzaleen Topagunea
- 3 Tokikom toki komunikabideen bateragunea
- 4 Euskalerrria Irratia
- 5 Xaloe Telebista
- 6 Berria Egunkaria
- 7 Nafarroako Gobernu Kontseilua eta Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundea
- 8 Nafarroako Gobernu Kontseilua eta Nafarroako Kirolaren Institutua
- 9 Dindaia Fundazioa
- 10 Nafarroako Bertsozale Elkartea
- 11 Euskarabentura Elkartea
- 12 Hekimen Euskal Hedabideen Elkartea
- 13 Nafarroa Iparraldeko Euskara Mankomunitatea
- 14 Antsoingo Udaleko Euskara Zerbitzua
- 15 Burlatako Udaleko Euskara Zerbitzua
- 16 Izagaldeko Euskara Zerbitzua
- 17 Izarbeibarko Euskara Zerbitzua
- 18 Euskararen Nafar Kontseilua (Itziar Diez de Ultzurrun)
- 19 Euskararen Nafar Kontseilua (Xabier Erize)
- 20 Euskararen Nafar Kontseilua (Reyes Ilintxeta)
- 21 Euskararen Nafar Kontseilua (Mikel Ziordia)
- 22 Euskalgintzaren Kontseilua
- 23 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua

5 Euskara, ekonomia eragile

- 1 Nafarroako Gobernu Kontseilua eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia
- 2 Nafarroako Gobernu Kontseilua eta Enpresa politikako, nazioarteko proiektu eta laneko Zuzendaritza Nagusia
- 3 UEMA - Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
- 4 Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- 5 Bai Euskarari Ziurtagiriaren Sustapenerako Elkartea
- 6 Iruñeko Asociación Casco Antiguo
- 7 Langune – Hizkuntza Industrien Elkartea Euskal Herrian
- 8 Emun
- 9 Euskalgintzaren Kontseilua
- 10 Elhuyar
- 11 Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
- 12 Euskararen Nafar Kontseilua (Xabier Erize)
- 13 Hekimen Euskal Hedabideen Elkartea
- 14 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua

6 Euskara Iruñean eta Iruñerrian

- 1 Hizkuntz Eskubideen Behatokia
- 2 Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala
- 3 Euskaltzaleen Topagunea
- 4 Karrikaluze euskaldunon topagunea
- 5 Karrikiri Iruñeko Euskaldunon Elkartea
- 6 Biltoki elkartea
- 7 Euskalerrria Irratia
- 8 Dindaia Fundazioa
- 9 Iruñeko Asociación Casco Antiguo
- 10 Orekari Iruñeko Arkitektura Estudioa
- 11 Luark arkitektoak
- 12 Iruñerriko Mankomunitatea
- 13 Iruñeko Udaleko Euskara Zerbitzua
- 14 Euskararen Nafar Kontseilua (Orreaga Ibarra)
- 15 Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua